

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXII Zenbakia.

1993

Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

Orr.

Onaindia tar Santi. (Barruko azalean).

Euskal izenak Erdiaroko Idazkeran.– Latiegi'tar Bixente 1

Magnetofol bidez erri-euskera jasotzen.– Oñatibia tar M. **8**

Gol Yakintzaruntz.– Urrestarazu tar A. **20**

Gotzaiñak eta euskerea Euskalerrian.– Olazar tar M. **23**

Santiago bideko euskal kantak.– Akesolo tar L. **26**

Arrain eta itxaski batzuen izenak.– Zubikarai tar A. **31**

Milia Lastur'ko.– Arrinda tar Anes. **50**

Lekeitio'ko kantak.– Arranegi'ko Anes. **54**

Liburu barria.– Alta Onaindia. **57**

Mungialdeko kantak eta esaerak.– Legarreta tar A. **60**

Esaera zarrak.– Malaxetxebarria tar J. **63**

Alblsu tar Anastasio. (Barruko azalean)

Esaldi jatorrak.– Oñatibia'tar Manu (Atzeko orrian)

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

Omenaldiak

ONAINDIA TAR SANTI

Aita Santi omenik ornen dabil.

Bere etenbako lanak merezi eben ainbeste.

Azkena, Urtarrilean Donosti'n, Euskalerriko bertsolariena.

Bere atsekabea, egun orretako ainbeste lorei kantuz erantzun ezin, orretan be maisu dala erakusteko.

Makal joan zan, erdi gaixo Donostia'ko jaira.

Bere omenaldiak ez dira bein amaitzen eta bertsolariak luzatu nai izan eben euren jaia ta beste etxekoi bat eskeini, eurekaitik egin dauan lanaren eskerra ofizialki lenengo eta lagun artean gero biozkada geiagoz erakusteko.

Orrela, pozetan ibilteko, gaixoari be eutsi bear.

Amorotoarrak gogorak dira izan be eta ameslariak eta ba dirudi indartzen asi eta bere gaur egungo idazleei buruzko lana amaitzeko garretan dagola.

Aita Santi'k, izan be, ezin lei bakerik eta osasunik billatu lanetik kanpora, liburu eta paperetatik kanpora eta ba dirudi atsedena aginduarren, orretan gaitz menderatu leiken gizona dala.

Urteak urte, tatarrez be, lan egin bear.

Bertsolarien omena, gelen bertsolaritzari buruz idatzi ditun liburuekaitik izan da. Beragaz batean omendu eben baita Alfontso Irigoien, euskaltzale jakintsua. Santi idaztien bidez goratzaile izan ba zan be, au bultzagillea izan zan, bertsolari jaien bultzagillea, euskeraz zerba;t egitea be Bizkaian ainbeste kostaten zan aldian.

Santi berberak Enbeita zarraren bertso liburu ta abar, erbestean argitaratu eta la eskutuan saldu bear izan zitun, aldi bateko zentzura orretarako gogorra zalako. Baña bere etengabeko irribarre eta praile kapak eskutuan daukezan gordelekuel esker, ezer ez eroialakuan aldian erabilten ekian beti onetariko liburuen bat, euskaldunei amets eragin nairik.

Batzuk denbora areik aztu egiten dabez. Besteak gogoratu.

Guk lengo eta oraingo denborak bizi doguzanok, Santirentzat ez dogu besterik bere "prioretza" gogoratzea baiño. Priore ainbat urtetan bere Ordenan, priore euskal elertian eta elertiaren kondairagintzan.

Eta gero ere priore jarraitu dagiala egiteko gogo ta asmoa daukazan lanetan.

Beti euskera buruan eta euskera oiñarri.


EUSKERAZAINTZA

ISBN: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ



EUSKAL IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

872'KO LARRUKI BAT (Amaia)

Larruki ontan giza-izenak eta done-izenak gelditu zitzaizkigun aztertzeke "Euskerazaintza"ren azken-zenbakian. Ona orain emen, larrukian aurkitzen dira giza-izen oiek:

Paulus, Johannes, Ñunno, Vigila, Arislus, Gatón, Todoricus (sic), Felmirus, Gimellus, Severus, Sarrazinus, Vlaquidus, Ennecus. Eta, ablatibu-eran, Gamaiso, Beato, Lisidio.

Izen guzti oietatik, PAULUS eta JOHAÑNES Eliz orokorreko santu-izenak dira. Baita SEVERUS eta BEATO ere. Beste guztiak ez dira "Bibliotheca Sanctorum" deritzan liburu mardulean agiri. Eta, - soilki bisigoten eta mozarabitarren donetegikoak ere ez ziralaren adigarri, - ez dira agertzen Aita Enrike Florez'en "España Sagrada"n ere. Beraz, izan jentillak ditugu guztiak.

872 artan izen jentilla zan oraindik, bisigoten artean ain zabaldurik egon zan TEODORIKO ber-bera. Izen ortako lenen donea 888'an ildako beesaxonitar bat izan bait zan. Teodoro, bai, santu-izen zarra da. Ez ordea Teodoriko.

EÑÑECUS: ikerturik utzi genduan izen au aldizkari onen azkeneko zenbakian. Beste izenei-buruz, zer esan ez dakit. Soilki izen oiek lateraturik datozte-la; dokumentu auek askotan izan dirala ber-idatziak; eta ez, geienetan beintza-t, oso era egokian; eta, ori dala-ta, lumalari aiek lateratutako euskal-izen auek lateratuak izan aurretik erriaren ezpalñetan nolako itxura izan zezaketen jakiterik ez dagoala.

Oroitu dezagun, gaiñera, oiturazko gauza zala euskaldun zarren artean abere izenak erabiltzea.

Orregaitik, larrukiak damaigun ARISLUS ori, -ablatibu-eran ARISLO-, ederk i izan daiteke berez ARISKO. Orrela ba'ltiz, zalantzarik gabe izango litzake izen euskalduna. Ta baleike orrela izatea. ARISLO ezer ez bait da. Arisko berriz badakigu zer dan gure artaldeetan: aari txikia.

Larrukian abata baten izena da: "Arislus abba".

SARRAZIÑUS.- Oroitu bearra deritzait, baitare, euskal abizenak askotan izan oi dirala egiazko aba-izenak, ots, asaba batengandiko izenak. Orrela, adibidez, Ansorena, Petrirena, Mitxelena, Martiñena... eta beste asko. Oietakoa dala dirudi gure larruki ontako Sarrazinus ere. Nominatibu-eran dago. Ablatibu-eran SARRAZIÑO izango litzake. Ez dezagun aztu, gejenbat ablatibu-eratik igaro zirala laterazko itzak beste izkuntzetara.

Paulinus itzak Paulena ta Marcosinus itzak Markosena esan nai duten bezala, laterazko Sarrazinus orrek SARRAZENA esan nai du. Orregaitik, geroagoko dokumentuek, -Enneko izena aztertzerakoan ikusi genduanez- agian jatorriz euskalduna dan "EZ" atzizkia erabilliz, Sarrazinus ori SARRAZIÑEZ idatziko digute. Eta era orlan oso maiz agertuko zaigu erdiaroko idaztietan.

Oso-osoan izen euskalduna da. Ez du arabiarren "Sarrazeno"rekin zer ikusirik. Gaur egun ere asko ditugu "SARRA"z asten diran toki-izen eta abizenak: Sarra, Bizkai'n abizen zarra, Sarran, Zarran, Zarranz, Zarranza, Sarrabide, Sarrail, Sarralde, Sarrate...

Kerexeta'ren ustez, "SARRA" ori "SARRI"ren aldakuntza dugu, eta "espesura" esan nai ornen du. Ortaz, SARRIBASO, "Bosque Espeso" ornen dugu. Ez diot nik ezetzik esango.

VLAQUIDUS.- "Vlaquidus presbiter": "Vlaquidus bereterra". Lekuko edo testigu baten izena da gure larrukian. Aipatu dugun donetegian ez duzu ez Blakide'rik ez Vlaquide'rik aurkituko. Ezta ULAQUIDE'rik ere. Azkeneko au bait da, agian, larrukiko Vlaquidus orren agoskera, "U" adierazteko, aro zar artan, oso maiz, geienetan, "V" erabiltzen zutelako.

Zer ote zan bereter aren izena?

Ulakidus, ablatibu-eran ULAKIDO, dan orrek abizena gieago dirudi izena baiño.

KIDE atzizkiak zer esan nai duan, guztiok badakigu: Berdintasuna. Zer esan nai ote du ULA aurrizkiak?

Orrela asten diran toki-izen eta abizenak, bat baiño gieago ezagutuko dituzu. Ona Kerexeta'ren liburutik artu ditudan batzuk: Ulabarri, Ulazia Ulagarai, Ulagi, Ulanga, Ulaortua....

Lopez Mendizabal'en ustez, ULA'k "helecho" esan nai du, ULI'ren aldakuntza ornen dalako. Geienetan ordea, askoren ustez, eta baita nere ustez ere, ULA ori, OLA'ren aldakuntza dugu: Ulabarria = Olabarria; Ularria = Olarria; Ulano = Olano; Ulangi - Olangi; Ulate - Olate...

Era orlan gure apaiz aren abizena OLAKIDE izango litzake: "Olaren Antzekoa", eta, ziurki, etxe baten izena; orrela, etheen izenetatik sortuak bait dira euskal-abizenik geienak.

Bai noski. Baiñan ori, laterazko izen orren aurreneko "V" ura "U" bezala agoskatzen ba'dugu. Ta... "B" bezala agoskatuko ba'genu?

Era ortan agoskatu ezker, apaiz aren izena BLAKIDE izan zala esan bear-ko genduke. Ta, zalantzarik gabe, itz ori, Blakide, BELAKIDE'ren aldakuntza dala esango nuke nik. Belakide, "belearen antzekoa"; karistiar eta autrigoitarren euskeraz "Belaren itxurakoa". Abere baten izena berriro, gizakume bati izen-emateko.

GAMAIISO.- Ablatibu-eran, bere alboko beste biak bezala: "Gamaiso, Beato, Lisidio fratres testes". Anak beraz iruak ("frates"); eta testiguak, lekukoak ("testes").

Gamaiso orrek zer esan nai duan ez dakit. Ez bait dakit gure larruki au idatzi zuan lumalari zaar arek ondo idatzi zuan ere. Askoz gutxiago bait dakit gero larruki auek ber-idatzi zituzten ondorengo lumalarietxukun jaso zuten. Baiñan ezin ukatu dut Gamaiso edo GAMAIXO orrek berekin duan euskal-itxura nabarmenik. GAMATXO, Ordizi'ko abizen gipuzkoarra da gaur bertan.

"GAMA" daramaten izenak ugari ditugu gaur-egun ere. Gamarra, adibidez, Araba'ko erriska bat. Gamarte, Gamatxo, Gamartza, Naparroa'ko, Araba'ko eta Gipuzkoa'ko izenak dira. Bizkai'ko Gamiz... ¿ez ote Gamaiz? Ta, beste galde bat geiago: Ondarroa'ko Kamiñazpi ¿ez ote da Gaminazpi?

GAMA, Enkarterrietako abizena omen da, Kerexeta'k dioskunez.

Lopez Mendizabal'ek, "gama" itz orrek "pastizal" esan nai duala dio, "G" edergailluz eta "larre" esan nai duan "AMA"z osoturik dagoalako. Mitxelena'tar Koldo'k berriz, zailtasun orotik igesi, ez du itz ori aipatu ere egiten.

BEATO.- Azkertu berri dugun Gamaiso'ren anaia. Au bai, au done-izena da. "San, Beato abad floreció en las montañas de Liébana por los años 778" (Florez, "España Sagrada").

Liebana, Santander probintziaren ego-sarkaldean, Palentzi, Leon eta Asturietakoko mugan, ez zan noski IX mendean euskalduna. Eztare, seguruaski, mendarte aietan bizitu zan Beato izeneko abazar ura.

Izen bisigota ote zeramakian bá Gamaiso'ren anaiak?

Mende bateko epea besterik ez dago Liebana'n bizitutako Done arengandik gure larrukian lekuko lez agertzen dan Beato onengana. Epe motzegia idurtzen zait, onek aren izena artu aal izateko.

"Bibliotheca Sanctorum"ek aipatzen ditu, Liebano'ko artaz gaiñera, beste-lau Beato Done: Bat Suizi'n eta beste iruak Frantzi'n ibilliak. Ñoizkotasun eza-gutze-zaillekoak danak. Agian bat II mendekoa. Beste bat II, III edo V mendekoa. Oietako batengandik artu ote zuan gure larrukiko gizon arek bere izena?

Ondo idatzirik ote dago larruki ontan bere izena?

Ez ote zuan larruki ontan eskua sartu zuten lumalarietakoko bateren batek, gure gizonak zeramakian euskerazko izena, -edo izengoitia-, laterara itzuli?

LISIDIO.- Lengo bien irugarren anai. Badirudi doneren baten izena izan bear duala, baiñan ez da orrela. Ez da agertzen ez "Bibliotheca Sanctorum"ean ez Florez'en "España Sagrada"n. Izen jentilla da beraz.

Lumalari zaar aiek "I" eta "E" errez alkar-aldatzen zituztelako, baleike aurre-nekoak 872'an LESIDIO idatzi zuana beste batek geroago LISIDIO biurtu izatea.

Orrela gertatu ba'litz, "Lesidio" izango zan gure adiskide zar aren izena: "LESI+DI+O".

"O" atzizki toki-adierazlea da, eta "DI" atzizki ugaritasun-adierazle txit ezaguna. Zer ote da "LESI"?

LES izeneko erri bat bada Ñaparroa'n. Lopez Mendizabal'en iritziz, "L" edergailluz eta gazteleraz "juncal" esaten dan "ES" itzez osotua. "IITZ"en laburpena litzaken "ITZ"en aldakuntza ornen da bá "ES" ori. Ez dut uste bide onetik dabillenik. Gaiñera, "LESI"ren "I" azturik gelditzen zaio.

Eta neri iduritzen zaidan bezala larrukiko LISIDIO ori, ondo idatzlrik ba'lego... zer? "ISI" izango gendukeala argitu bearko gendukean itza. ISABA, Erronkari'ko erri bat dugu. Etimologiz, agian, IITZA+BA, "Bajo el Juncal". Bai ote? Ez dut oroitzen erri ura dagoan toklan iitzarrik ba'dan.

Baiñan egia da beintzat "ii", -nominatibu-rean "iia"-, "junco" dela.

ISALS, Amezketa'n, bi baserriren izena da: Isais Goikoa eta Isais Azpikoa. **LISA** Zestona'n eta **LISA** Araba'n euskal-abizenak dira.

Alatagutziz, onako bestetxo au ere gogoan euki bear dugun gauza da: abizen eta toki-izen askotan "ISA", "IZA", "LISA", "LIZ" eta "IZ" oien sustraia "eliza" izan daitekeala. Eta baita, beste batzuetan "lizarra" ere.

Adibidez, Lizabe ta Lisagarai abizenak, Elizabe eta Elizagarai dira ezpairik gabe. Baiñan, Lizaso, Lizate eta Lizaldi, ezpairik gabe Lizarso, Lizardi ta Lizarte ditugu. Lizeta berriz, Lezeta izan daiteke: "Lugar de Cuevas".

Izen oietako bakoitzari nolako etimologia dagokion jakiteko, naitanaiezkoa dugu izen ori dagoan tokiari begiraldi bat ematea.

Ta? Ori naikoa al da? Ez bá. Toki-izenei, noiz-beinka, tokiz aldatzea atsegiña zaiela bait dirudi. Ez zaitetz arritu, an edo emen, Iturbe izeneko baserri bat, iturriaren azpian ez baiña iturriaren gaiñean ikusten ba'duzu, itxurazko buruga-bekeri orrek bere zioa bai bait du:

Baserri ura, **itur-pean** izan zan eraikia. Gero ordea suak-edo ezereztua izan zan. Eta bere nagusiak iturriaren gaiñean bir-eraiki zuan, baiñan izenik aldatzeke, len zuana ber-bera emanez: **Iturbe**.

Euskerazko etimologikerari dagokionez, esan genezake gauza bat bera egiten dutela izenak eta izen orrek izendatutako gauzak. Onek tokiz aldatzen ba'du onekin batera aldatzen dú tokiz ark ere.

Orregaitik, orrelako toki-aldaketarik izan ote dan jakiteko, bearrezkoa izango dugu bein baiño geiagotan dokumentuetara jotzea, etimologigintzan oin ziurrez ibilli nai ba'dugu. Eta arazo bakoitzari-buruzko dokumenturik billatzea lortzen ba'dugu ere..., ez uste, maiz aski beintzat, eskiertasun aundiegirik lortzera iristen geranik. ¡Ain era oker eta baldarrean idatziak aurkitzen bait dira euskal-izenak ia dokumenturik geienetan...!

Gauza zaila ta arriskutsua benetan, etimologigintza!

GIMELLUS.- "Gimelus presbiter". Ablatibu-eran Gimello. GIMELO, bi "LL" oiek "L" esaten ziralako.

Ez da au ere done-izena. Ez bait dugu donetegieta bere aipurik aurkitzen. Nola irakurri bear ote da gaiñera izen ori? GIMELO? JIMELO? ala XIMELO?

Ximelo ba'litz, Tximela'ren ttipi-era edo diminutibo dan XIMELA'ren antz aundia izango luke. Tximela bera ere, Zimela'ren ttipi-era dugu Tolosaldean, abizenez Rezola diranei deitzeko. Ximela edo TXIMELA ote zan IX mendeko bereter aren izena?

JIMELO irakurtzen ba'dugu, "JIM" zer da jakiten saiatu bear ko dugu.

Aurrizki ori daramaten izenak baditugu gaur ere: Jimet eta Jimeldegi, Laburdi'n. Jimileo, Errioxa'ko erri bat. Eta JIMEÑO, giza-izen euskaldun txlt zaarra. Larruki onen IX mende artan bertan Jimeno bait zuten izena, Baskoni'ko Duke batek, eta baita Igal'ko lekaidetxe naparraren abata batek ere, Kordoba'ko Doneeulojio'k bere eskutitz ospetsuan esaten digunez.

JIM+E+NO itzean, "Ño" atzizki toki-adierazlea dugu. "AÑO" (Araba'ko Arriano errixkan adibidez), "NO" (Motriko'ko Amo mendian) eta "O" (Bizkaï'ko Elorrio urian) atzizki toki-adjerazle bat berbera bait dira. Baita, seguruaski "LO" atzizkia Araba'ko Arbulo erritxoaren izenean.

"E" "baskoien", "karistiarren" eta Goierriko "bardulitarren" araura, nominatibu-erako "A" dugu "E" biurturik.

Zer ote da Jimeno'ren -eta aipatutako beste izenen- JIM aurrizkia? "Etimología problemática" ornen du aurrizki orrek, "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" k dionez.

Mitxelena'k argir;k ez damaigu. Lopez Mendizabal bai, saiatu zaigu argi-izpi bat eman naiean "jim" ori, erderaz "junko" esaten dan "ii" ;tzetik datorrela esanez. Ez zait iduritzen asmatu duanik. Egia da gipuzkerazko "ia", eta beste euskeretako "ie", gazteleraz "junko" dala; egia, antziña artan "I" izkia "J" idatzi eta "I" irakurtzen zala, eta, ortaz, "jim" ori "iim" izan daitekeala; balñan, alataguztl, ez zait aren aburia atsegiñegia gertatzen, "ii" en azkeneko "M" ori argitzeke gelditzen bait zaio.

Ta larrukiak eman digun izena, GIMELO irakurtzen ba'dugu, zer? Bá "GIM" ez asitako toki-itzik ere ez zaigula peitzen:

Gimandia (Azpeiti'n), Glmon (Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n), Glnea (Araba'n) erri bat eta aski abizen zaar bat, 1475'an aipatzen bait du bere "Bienandanzas e Fortunas" liburuan Salazar'ko Garzia'tar Lope'k) Eta oraindik zarragoa GIMESOLO, Arraste'n 1448'ko abizena, Kerexeta'k dionez.

GIM, Lopez Mendizabal'en iritiz, "larre" ornen da "pasto", gazteleraz. Oraingo ontan ere ez zait iruditzen bide zuzenean dabillenenik. Eta oraingo ontan ere, "Mitxelena'k ez digu laguntzarik emango.

"GIM" eta "GIN" aurrizki bat-bera dirala ontzat artzen ba'dugu, "GIN", "A" galdu duan "AGIN" dala esango nuke nik. Itzaren muturreko abostizki edo bokalen elisisia edo galketa maiz gertatzen bait da gure izkuntzan: Roiabe = Arroiabe; Roniz = Arroniz; Lizeaga = Elizeaga; Recarte = Errekarte; Ñeko = Eneko; Llarregi = Illaregi; Larte = Olarte; Lazia = Ulazia.

Ñere iritzi au egiazkoa gertatuko ba'litz, Gimandia, Aginandia izango litzai guke, Gimon, Aginon; Ginea, Aginea, ots, agineaga, "lugar de los tejos", "e" sarkaldeko euskeraren artikulua dalako. Eta Ginesolo, Aginesolo.

Barka eidazu, irakurle, ni ere oker nabillela iduritzen ba'zaizu.

NUÑO, FERMIRUS, GATOÑ, VIGILA.- Ez dira done-izenak. Aurrenekoa, **NUÑO**, len ere aztertu dugu aldizkari ontan. Jatorriz Galizi'koa dala esan oi da, baiñan, ain goiz eta ain ugari gure lurralde ontan agertzen dalako, euskalduna dala esango nuke nik. Agian, **MUÑO**'ren aldakuntza.

Bigarrena, -**FELMIRO** ablatibuz-, zer izan daitekean ez dakit. Donetegietan agertzen ez dalako, latera-itxuraz mozorrotutako izen euskaldun bat segu-ruaski.

Irugarrena, **GATON**, euskal itxura geiagokoa dugu; agian "**GASTON**"en aldakuntza. Oná zer dion Baztan'goa dan abizen ontaz Kerexeta'k: "Una rama pasó a Aragón, entre las que figura la madre de San José de Calasanz".

Izen ortan "**GAS**" zer dan ez dakit. "Gaskuen"ren "**GAS**", Mitxelena'k "**Gatz**" dala diosku. Bai ote? Diona ontzat artzen ba'diogu Baztan'go abizen ortan "**S**" eta "**T**" tokiz aldatu-rik daudela esan bearko genduke, eta, jatorriz, **GASTON** ez baiña **GATSON** edo **GATZON** zala abizen ori. Geiegi esatea deritzait.

Ez zait atsegin Lopez Mendizabal'ek diona ere: Gaston, Garzon'en aldakuntza dala, eta Bizkai'n eta Nāparroan'n aski ugari dan euskal-abizen au "**ARTE+ON**" dala. Jauzi aundiegia eta zaillegia "**Gartzon**"etik "**Arteon**"erako jauzia.

Lekuona zanaren ustez, "**GAST**" orrek "gastelu"rekin bai ornen du zer ikusi-rik. Ortaz, **GATOÑ**, "Gasteluon" edo, berdin dana, "Gasteluon" izango litzake.

Orrenbeste istilluren ondorean... ¡deus ez! Ez dakigula larrukiak dakarren GATON ori zer izan daitekean.

Danadala, "**GAT**" aurrizki duten izenak badira bat edo beste Euskal-errian: Adibidez, Gatuka, XVI mendeko abizen bizkaitarra, Gatutza, Arrasáte'ko abizena. Eta Gatika, Bizkaia'ko erri ezaguna. Baiñan izen oiek nolako etimologia izan dezateken jakiterik ez dago.

Berdin gertatuko zaigu **VIGILA**'rekin. Ez da au ere done-izena. Izen ori izan ornen zuan, oartu gabe eun urte txori baten abestia entzuten egon zan Leire'ko lekaide ark. Izen ori zuan X mendearen erdialdera Albelda'ko lekaide-txean bizitu zan beste lekaide izentsu batek ere; bere izena daraman "Codex" edo "Larruki-Bilduma"ren egilleak: "Codex Vigilanus".

BIJILA emen sortutako izena dugulako, badirudi izen euskalduna dala, naiz bere etimologia zeoro ulerteziña gertatu.

SEVERUS.- "Severus presbiter testis": "Sebero bereterra lekuko". Au bai, au santu izena dugu. Elizaren asiera berberatik asko izan bait dira izen ortako doneak. Oietako bat, euskalduna, apaiza, Bigorre'n jaioa. Bigorre Auñamen-di'ren iparraldean dago, Bearno'ren alboan. Gaur, bere erririk ezagutuena, Lourdes. Frantzi'ko erderaz, Lourdes.

Oartu zera noski nolako euskaldun-usaia duten izen oiek danak. IX mendean, zera euskaldunak ziran toki oietan bizi ziran jendeak.

Beste glza-izen bat ere badagerkigu larruki onek: RODERICUS. Larrukiaren idazlearen izena ainzuzen: "Rodericus presbiter scripsit". Eta au bai, Errodrigo, izen bisigota da, Teodoriko bezala. Santu izena da gaiñera, naiz agian apaiz idazle aren aldian oraindik izen jentilla izan. Soilki eunen bat urte leenagokoa bait zan Kordoba'n martiri il zan Errodrigo mozarabiar donea.

Bi izen oiek, bisigoten kultura 872 artan gurera iristen asia zala esan nai ote dute? Baleike Teodoriko ori zuzen idatzirik badator, eta Rudericus, larruki au bir-idatzi zuten batena ez baiña, 872'an idatzi zuan lumalari zar aren izena ba'ltiz.

Larrukian agertzen zaizkigun 14 done-izenetatik 9'k, Julian, Basilisa, Justo, Errufino, Bixente, Leto, eta Adriano'k ez digute deus aundirik esaten, Eliz orokorraren donetegikoak diralako. Oso zarrak gaiñera.

Amargarrenak, Donemartin turenatarrak, euskaldunekin izan zezazkean arremanetaz mintzatuak gera, eta beste biak, Felize ta Millan errioxatarrak, euskaldunak ziran.

Eta baita, seguruaski, 9 aietatik beste 2 ere: Bixente eta Leto ainzuzen.

Bixente onek ez du, Oska'n jαιο ta Diokleziano'ren denboran martiri il zan diakono euskaldun arekin zer ikusirik.

Au, eta Leto bere laguna, akitaniarrak ziran, "Bibliotheca Sanctorum"en us-tez. Liburu orrek dionez, onako izenburu au ematen ornen dio bá frantziarrek Dax eta euskaldunek Akize esan oi dioten elizbarrutiko "Brebriario" edo otoitz-liburuak egun bateko liburgiari: "Passio Sancti Vincentii et Laeti socji eius qui passi sunt in civitate Aquensi": "Akize urian nekalduak izan ziran Bixente eta bere lagun Leto'ren nekaldi-eguna".

Egia da biak, alkaturik beti, Mozarabeen egutegian agertzen dirala; baiñan españiarrak zirala uste izan zalako. Onela Florez'ek bere "España Sagrada"n: "San Vicente y San Leto atribuidos a España equivocadamente".

Beraz, nonbaitekoak izatekotan, akitaniarrak ziran. Euskaldunak beraz.

LATIEGITAR BIXENTE





MAGNETOFONO BIDEZ ERRI-EUSKERA JASOTZEN

**Izketan: Deba'ko Sindika baserriko
ARRIOLA TA ALBISU'TAR JOSEFA**

- 1.- Gaztetan etxean.
- 2.- Hotelean.
- 3.- Jose Migel Barandiaran bere etxean.
- 4.- Motxaillak.
- 5.- Arrate-irratitik Carlos Agirre'ren izketaldiak.
- 6.- Errota-bidean.
- 7.- Sasiola'ka prantiskotar-konbentua.
- 8.- Anketako txira.
- 9.- Kuñata Santageda'n.
- 11.- Bere sendia.
- 12.- Semea kuartelean ill.
- 13.- Angulatan.

1992'ko epaillaren 26'a. Arratsaldeko irurak dira eta Deba'ko Sindika base-
rrian, etxeokandre jator eta argiyarekin izketaldi bat egitera goaz.

- Zure izena nola da?
- Josefa Arriola Albisu.
- Zenbat urte dituzu?
- Larogeita amar. Ta Deba'n jaixo (1), ta Deba'n bautizau (2), ta Deba'n ez-
kondu ta Deba'n bizi.
- Iya! Zerbait itz egin zazu, zuk nai dezun gayetaz.
- Ama ill eta zazpi ume geldittu (3) e! ta itxeokak (4) azi ta aittak (5), ta geo
(6) nik zortzi-beatzi (7) bat urte eukiko nittuan (8), beintzat ordurako eskola da
banabillen (9), da ama gartxe? ekartzen, da atzean ittulan (10), ardi-zai, esko-
lan, ori ze (11) esanik ez, e! Sei urte nittunetik (12) eskola (13) bialtzen niñuan,
da (14) ni nitzan lenengo joandakoa, bestiak ne (15) atzetikan urte geixaokin
(16) jun tzian (17). Ñik irakurtzen ikasi nuanian, beste danai dotriñakoa (18) bu-
ruz erakutsi niñauan (19); kantatuaz gabian; eta geo (20) orduan arrosaixua
(21). Eta sasoi onetan San Josei (22) nobenia eitten (23) giñun eta Ama Doloe-

takoai re (24) bai. Eta eman (25) lanak eiñ (26). Eta guk oker danak kantau (27) ta diskuiratzen ba'giñan, dixkuiratzen ba'giñan, aidak kostatik (28) eamaten zizgun notia (29): deskuidatze bat zekat (30); ta gu danak alaxe azi giñala.

Eta geo (31), amalau urte nittuneako (32) auzoa (33) otar-lepaka (34) bialdu niñuen; etxian beti eitten genduan, orduan baño lenagotik asitta (35). Eta gero, emezorzti bat urte nittuanean, ba, otelera jun; bialdi niñuelako, beste bost urte eiñ nittuala (36), eta bost urte abetan e (37) ba, antxe burruka ibilli gora ta be-
ra. Aszensora Deba'n orduantxe zala lelengua (38) ta nik estreñau nuala, baño itxe (39) orretan ni jun nitzan aurreko eguna edo aurrerokoa edo (40), bost abitazioko itxia eiñ (41) eta teallatuan muturra (42) zelebratzeko aparixa eitten (43), eta bigarren pisutik jausi ta nagusixa (44) ill zan; Romualdo difuntua; Deba'n zanikan (45) esateko gizonik aundixena uraxe (46) zan eta mariñela zan e!, ikastolan? eitten zuan lana. Eta andreik (47) etzeukan, andria oso gazteik jun zitzakon (48), eta izekok eta osabak azi zittuzten umiak (49). Eta or, eta ni jun (50) da, esnia Santixotik ekartzen zeen (51), Santixo'ko Prantxixka etortzen zan mezetaa (52) zortzixan (53) bein, tertulixa eitten (54) zuan an, eta kobratu, arteko esnia (55), ta neska ederra galanta ekarri dezue, talentua duana beintzat, etxeoandriak, eta biarra (56) an talentua dana, lana eingo (57) bada. Oain (58) e (59) naiz akordatzen beste gauzaikan (60). Milla gauza dia (61) e!, milla gauza dia!

Beste neska danak jun (62) da, señorito bat gelditu zan atzea (63) eta aek (64) alkaten? zuana, geo (65) ematen zuana parte izateko jun da, pezetalla? bae (66) jun ... eta etzuan, e!, egixa da e! egixa da! Uda guztian eon tzan, eongo zan aura bi illabetlan bal beintzat otelian, eta lo eiñ (67) eta jan; goizian almortzia eitten (68) zuan eta gabian, ate ondoan eon bear zai, noiz etorriko (69); otela itxitta re ein zittun egunak (70), otela itxxitta re (71); eta zentimo bat eman be (72) jun; nik euki (73) ez ba nuan etxeoandrian eta zea (74), garbituko niñuen e! (75); beste amazapi giñan gu kajan eon (76) giñanak; garbittuko (77) niñuen ni; eta ez dakit zenbat zan baño, iya milla pezta ingurua (78), or izango zan; zeatik ee, (79) zortzireun pezetakua re (80) izan genduan. Aura zan gure zea (81), ta goizian jaikitzen giñan ta ordanian? zazpirak laureen gutxivak (82), gabian ordu bata, or ibiltzen giñan, buelta orretan (83). Eta urte baten gertatu zitzatten gaiñea, (84), negu bat bakarrik eiñ nuan e!, urte bat bakarrik eiñ nuan osua; eta bosua? ematen ziaten (85) illeko neguan, e nik arekin ze egitten nuan...

Eta urte baten orrela,... etxe batekoa zan, errikoa zan emakume aura, baño etxeen baten (86) eoaten zan, langilleei, koziñeriei eta sukaldian ta ayudan lanian ipiñi neska eta atzetik (87) eoten tzan eta otelea sukaldeia ipiñl ta, ta iru egun ein zittunean (88), aako (89) ierri (90), bere burua etzekilla testiagon? ta bixaldu (91) zuen aura ta, zuk eingo zu (92) beintzat orrenbeste, etxeoandriak, orrenbeste eingo zu (93) beintzat zuk ere, eta zeurekin nai det or kontau (94); eta urte aretan (95) ni izan nitzan ango pintxia.

Eta San Rokeak etorri ta San Roke eguna ta bigarrena euki gñuzen ordu baten bada re kanporako (95), ta ni, ogera, ogerako moduan, eta ogera al tzuaz? esan zittan (96) eta bai, aspertuta nago ta; biak jun (97) bear de (98) Alamedai buelta, oaindik (8) ez diot eman Alamendiai buelta, barrakaik (99) ez det ikusi ta biyok (100) joan biar deu (101), biyok izan giñan urte baten (1020) Alamendako barrakak ikusten. Ta ni etxe artan alatxe alatxe konsideratu nitzan.

Aita Barandiaren etorri zan: nola asiko naiz? Sasiola'ra eta Sasiola'tikan (103) emen beian eon (104) nai zuan, baña emen e (105) eziñ eta gora juañ zan itxuria (106), eta amak eta attak (107) artu zeen (108) eta an in tzuan tratu, lo ein (109) da jatekua preparatzekua eta amabost bat egun eingo (110) zittuan. Bi langille artu ta koba-zuluan nola ibilli zan, lurra gabaitzen (111). Eta atze-aurrea (112), illuntzean eta zeian (13) amakin, erretratuak atera, goruetan? ipiñi, olluakiñ urrena eta erretrato mordua eaman zittuen (117) arek gure etxetikan. Eta emen ee (118) Sasiola barrixuan (119), aua etzala beela aztu (120); etzan aztu eiñ; etzan aura beela aztu (121). Ñi onaa (122), etxe oneta (123) etorri nitzanian ee (124), oraindiokan (125) emengo aittak aura, gizon aua ona (126) etorri ta ala ibiltzia asko txokauta eon (127) tzan. Ez daukat nik arentzako beste gauzaikan (128).

Eon, eon (129). Or artu baño len, San Mikel lelengo. Emen, etxe ortakoak eta goikoa, eiñ (130) reuiniva eta alkautetzat bota niñuen eta nik kasoik iñ (131) ez. Egun baten, (132) orkua ere soziyua zen. Eun (133) baten etorri tta (134) esan tzian illuntze baten ee, an kandelía ipiñi eleizan eta gu baguaz aurrea (135) ataiko bidian gora (136), esan tzian.

Gaur oaindik (137) motxailliak, motxailliak, ori danak baño gogorragoa da. Ez da oaindik (138) amar egun izango: txakurrak eskandalu (138) baten, ta nere burua lotara eziñda nabillen (140), aspirina artu ta eztakit zer eta lotaa (141) eziñ da nabillen; erten det ataira (142), ori kuerdia eman da ibilteko orlako txakur txoliñ bat bota orraa (143), or zaku mordua eon (144) da leno (145) ieltseé ruena, an papel artian otsa ateratzen tzun ta saunka eiñ (146). Erten nuan da, ze (147) palta da emen? esan niuen (148), ze palta da emen? eta etxeko txakur txiki ori sartu nuan, zela ala (149) onaaño (150) eta erten det or, arrapau nuan egur batekiñ or petrillan zeukeen laata (151) Ixillik zeuen (152) bigarrengo (153) erten nuanian; eztakat beste penaikan kirtaatxo? batekin jun banintz, raa, dana tirauko neuan (154) neureana (155), egurraikiñ jun da jota ta mastriidu (156) eingo (157) nuan; auraxe penia daukat; motxailla txarrixo ok (158) esan nonauretxe (159) nik esan biautena (160).

Eta deklarau bearra: argixa biar (161) det... ze (162) eman biar (163) dieu? (164) Ori, nee (165) gizona III baño lenagoko tratuak diaoien (166) asi ziala eta amen (166) noaño (167) etorri oean (168). Emen, emen,... ez dao (169) ortikan illuntzietan, ez dakit akordau zaren, ee! D. Carlos Agirre'k bi-iru itz eitteittu (170), e!, mandamentu bakoitzian bi eo (171) eta poli'ki esateittu (172), Jantzian (173) puntara bat, lantzian puntara bat, ederki esaten dittu (174) kontu oyek, arek. Bart esan nion, bart esan nion Pedro'ri e!, gaur e (175) poli'ki ai (176) da D. Carlos; ez dittu (177) eittén (178), eitten dittu (179) dozena bat itz inguru (180) eitten dittu (181) ta arek bere obligazioa betetzen du.

Eta amen, nik amalau urte inguru (182) ta baita errotaa (185) re (186) eta izaten zian arkume danak Mendaro'ko estaziora ematen (187) giñuzen; artuak nere aman (188) etxian, Otzondo'n; an errotatxo bat zan eta beatzi (189) urte nittunean (190), ez daukat goguan ze (191) urte eukiko nittuan (192), astoa bidia erakustekouan (193) bialdi niñuan ni zorrúa (193) bizkarrian ipiñi ta errotaa (194) aitta (195). Emen... or gañian buelta emandakoan osaba, Otzondo'koa or izango a (196), eta keotan? ere zorrúa muitzen eo (197) ba zaro (198), etorriko zatzu (199), ta jun da, beintzat jun nitzan; arrezkeo (200) makiña bat biaje ein (201) det, nik errotaa re (202). Eta emen pasatzen giñan eta or egun pi-

lluak... dagozte? atzian; ortik ateatako (203) egur da (204), bueno dana; ori desmontau ein tzeen (205) orrela nabillela, eta aura, bar de la playa esaten giñon (206) leno (207), bañan ez dakit nola esango dean (208): frontonyan orduan ba-dago-ba (209) an etxe bat, trenbiren bittartian (210), aura, etxe ura dana, emango egurrakin ein da do (211), eta beste gauza asko eaman dittue (212) emendikan, emengo aittak esaten tzuan (213), zelako gurutzia eta zelako gauzak eaman (214) zittuen (215) emendik, e! Zarautz'a re (216) bai, tta (217) toki askota (218) toki batea (219) baño geixagota (220) gañea eaman zittuela (221), bata !orlan?, ori, oain (222) baño leno (223) entzun nuan, antziña entzundakua da ura, onaa (224) etorri baño leno (225). Saloia dauken etxia orrek, konbentuak, auzkaldea daukan kantoi inguruan zeuken komedora, ta andikan bota kañia, sokia irrixoa (226) arrainka eitten (227) zan; eta geo aura itxi zaenlan (228) ta orrela prailliak kastau zianian (229), itxi iin teen (220), eta itxia, mutil-kozkorrek ezin sartu be eon (231), ta lustre ederra (232) zeukan itxiak (233), ta nola reja-zulo batetik nola pasatzen zitzakozen (234) mutill kozkorrek, bueltako mutil) kozkorrek zaittu eziñ (235) ta nola ibiltzen zan; eta etxe-koa izango zan aurrena; nola ibiltzen zan eta; aura bota zeen (236) baña, baña elizia or laga ta dana saldu' terrenua? ez terrenua ez do (237) oaindik (238) salduta, baña osteantzeko (239) lur danak, or kanposantua, ta ori sorua ta oyek dana salduta daure (240), eta goiko praillien etxia re (241) bai; osteantzeko pezetia izan leiken gauza guztia saldu zien orduan; eta emen, intxaur aundi bat kalte eitte (242) ziola elizai, ikaragarrizko adarrakin (243) ta urtian urtjin (244) intxaur pillua izaten zuan eta nola parrokuak eta orain il tzan baña, Deba'n Kastor difuntua esaten zioen (245) gizon bat ba-zan, asko metitzen (246) zana orrelako gauzaakiñ, eta nola bixak (247) drogan (248) ibiltzen zian, beti urtian-urtian drogan ibiltzen ziala (249), intxaurrak jaso zittuela (250), ez dakit ze eittezeela (251), bestiak baakl (252) zer eta orrela ibiltzen zian (253), eta emengo kontuak.

Eta gero ori, frontoya ogeita beatzi (254) duron ateratzen zan saltzea (255) eta ogeita beatzi durotikan (256) gu presentan (257) ba'giña, itxuria (258) ixil-ixilik jasoko zan, baña guk ez genuan (259) jakiñ .ee eiñ (260); ixil-ixilik artan (261) artuko genduan guk ori frontoya ta plaza ori dana, baña batako (262) pujia ta besteko pujia jaso zen zeeraño (263), amar milla pezetaño (264) eta gu ez giñan atrebittu (265) orrei kasoik eitten (266) eta or do (267) muerto de risa; ori orrela do (268). Emengo kontuak? Emengo kontu danak esango balia (269), danak esango balia (270), mordua dia (271), eta esango nittuke (272) oaiñ ee (273), oaiñ ee esango nittuke (274) batzuk.

Geo emen, nere attak (275) majiña bat bider (276) esan zuan, lagun txarrai etzakola (277) lagundu biar (278), baño bai, ederki txupatzekoa (279) izan ez-kero, laguntze eiue (280), eta or goiko mutillak emen urte batian plazia prepatzen da ibilli ta elizatikan atea (281) ta, oaingo (282) kontua da ori: obria eiñ (283) ta nee (284) suñak sartu zittuan geldittu (285) gelditu zian desplojuak, desplojuak etzian (286), tellatuko lata ta zeuen (287) egurra eta beintzat pus-kak, eta sartu barrura ta zaurenak (288) atea (289) ittue (290)-•onaa• (291) ta kargau ta betik gora. Ñee (292) gizona, ortxe zeon (293) mutilla jarrita, etzan asko geixo (294), eta esan zian ezik (295) oyek trakotria kargau dee (296), orrei ez daixela (297) ori eman (298) emendik, e! Nik esan deala (299) eta esan nioen; naxo (300) nuen ekarri ba nuan onaa (301) orduan... Abe Mai Puixima

(302), eaman kargau ta bota orraa (303), or eamango deu (304), or zauken (305) garajia ta... Orra eamango deu kargau ta. Abe Mai Puixima! Guk ez deu (306) ikusi geixao (307) ura. Emen zenbat orrelako mouko (308) pasau ote dial (309). E nijua geyo esatea eze! (310). Baá meezi (311) ez zetanak ez taure (312).

Eta beste gauza bat oaiñ gañea (313). Kamiñua. An andiko (314) kamiñu zarreko kutzian errekoa do (315), erreka muturra alde artan; bota zikiña ta es eta terrenua arrapau ta kamiñutzat eiñ da dao (316): Ez dakit zekiñ (317) garbiu bear deun (318) gauza ori, ez dakit nola atea (319) bear dan. Metro erdi eskau ziu en orri, tta oaiñ ia (320) zenbat metro dauren (321). (Semeak jarraitzen du). Arek eskau zee (322) onaa (323) etorri ta, atta (324) zana eskasa zeuela (325); injenieru Diputaziokuak esan tzuan, gorako biria (326) zabaltzeko, kamiñu-okalondua lasaitzeko, bestela manlobra eiñ (327) da buelta oi zuen kamioiak eta; an ipiñiko zeela (328) zabalduta eta bera, diru asko éskatze (329) ez bagendun beitzat, zabaltzea konbeni zala; nik esan nion: dirua, dirua; ba gutxienez bearko zula (330) beintzat eskonbreran, amen Elgoibar'en eta eskonbreran kobratzen zeena (331), biiko zula (332) gutxinez (333), eta, baa!, ori besterik ez ba-da...; ori guk ez deu (334) pagau biar (335); ori Ayuntamientoak pagau biizue (335), esan zuan beak (336); eta ala, jun zan da geo (337), lenengotikan orduan egon zan alkate Eduardo zanak, etzekixen (338) aurreko goraberarik eta esan nion, da etzan konforme gerau (339) baña gero enterau zan itxuria (340) ta andikan ee, Diputaziotik anze (341) esan tzi-guen, eta geo (342) beintzat (343), alakon baten ee (344) kobrau zan; ez dakit an botatako kamioika danak kobrau balia (345), éz dakit ainbeste izango zan, baña beintzat (346) kobrau balia (346) kobrau zen. Zenbat pagau ziu en ba? (galdetzen du amak). (Eta semeak erantzun) Dana dala (347), beintzat aura izentamentua. (Emendik aurrera berriz amak).

Olako koskortxo bat juntau zan ori. Eta guk ez genekixen (348) ori zezan (349); anka aundiu bai dana; eta gero emengo auxe gertatzia olako tokixan (350). Eta, bialtzen niñuen zeera (351), tallerrea (352), neska josten eittea (353), eta an ama zarra zeuan (353), ibiltzen zana etxe beian, errixan danean bueltan (354), orrela mouzkoai (355), eta orrela ibiltzen ama zar orj, ama zarra zeuken (356). Bi aizta zien eta ama zarrak esan zian: Ez gero ori apurtu, e! Ori ez gero zulatu, e!, esan zien: orj barisena da: Nik osaba naukan (357) Deba'n eta esan zian ezik (358): Orrekin Mutriku'ra jun biar deu (359): Mutriku;ko meikuena (360); eta eman zian (361) olako (362) ujento usai txarreko bat eman zian (363), eta epelian, otzik (364) ez, eta berua re (365) ez, baña otza re (366) ez, eta arekin eortzixaz (367), aura ezkutatu zan; ordukoa ala pasau zan. Eta otelian eztian geixe... sukaldian eon (368) nitzaneko umedadeko zean (369) da ori, zan aura, eta otelian etzian geixo erten, baña bai gero, uf!! Geixo (370) alde eiñ (371) ez. Eoten (371) n;tzan zulua itxita, ta bai, ibillaldixak (372) eitten (373) nittuan (374), baña gero, nekau eo (375), ez da txarra: asi emen sasoi onetan, martxuan asi, ta San Antonioetakoa ez da txarra ori gaiztotzeko; berua gero, San Rokian Aldera eo (367) or eitten (377) du bere asialdia orrek, gauza orrek. Eta nik ez de iñor ikusten neu bezela; ez dakitt nik nola gobernatzin ittu en (378) bestee; nik beste bat ikusi nuan, ni aldi an gaztia zana: odol-erreka aundixak (379) gaiñea (380) usten da, Deba'n da, zer daukazu orrela odola edo odol ori orrela ta, aaba (381), zulauta (382) dauzkat barizakiñ, esan

zian (383), zulauta dauzkat, esan zian; eta garbittu (384) gabe orrela zabilta?, esan nion; gai;a (385), odol orrekiñ erten da? da au?, eitten (386) zuan lotsautata, dana toki batea (387). Au ez da alde eitten bein bixtau ezkeo (388), dolonña? Alaba operauta euki et (389), eta esan nion: esan-ba ari ere, ia ze emate izun (390); eta abixua etorri zait oaiñ (391) beak (392) ez dakixela (393) tratamentua nola dan; beak (394) operau bai, baña tratamentua nola dan ez dakixela; ala da-ta... Arrinda jaunak ezan zian (395) neri, orrela ikusita; txira nekan (396) nik orrelaxe. Izango zan bat, ekarri zeen (397), zein da neskame morura (398), da ama il zan da, beakiñ (399) bakarrik geldittu (400) zan, da gure karga geixao (401) arek, gañera ta etzuan nai iñolaz ee (402) diruik kastatzeik (403) ee (404), etzuan blar da (405); egunen baten jungo naiz (406), baña enitzan beñee jun (407), enitzan beñee jun, nik nola neukan eakustea (408). Arek eaman tzuan (408) ura ree (409). Izan ee... (410).

Etorri zian onako (411) orkuak onara eta aentzat (412) etortzen zian (413) arropa zar eta berri, usautakuak etorriko zian (414) getxena (415) eta iñolako etortzen zan arropia re: aprobau ta, neuk etzikanan gaizki (416) eta da ta??. geo (417) zeozen (418) gauza txarra batu zuan eta beintzat, umiak ee (419) orduan beintzat zela-ala (420) umiak illak ba-zian (421) emen eta geldittu (422) zian iru anai-arreba a;ttakiñ (423) eta arreba zarrena ezkondu zan alargun batekiñ Mendaro'ra eta bigarrena zorau ein (424) zan, ta Santageda'n sartu zauan (425), ni onaa (426) etorri baño leno (427), eta an eukialdixa eman (428), ta mejorau zala ta ekarri; baña ura atzea leenea (429) berriz ee (430) eta atzea (431) ez genduan beela (432) eaman (433); noiz ein (434) genduan berriz an sartzeko bidia, Jesuuuuus!... Jaungoikuak daki. Nik eitten (435) nuan lo areklñ; San Roketan asi ta Domlñu Santu ingurura arte, ta Don Tomas difuntua etorri tta (436) geixo eztiu (437) itxoingo, esan zion; lengusuak zian (438) don Tomas difuntua ta nee (439) senarra, ta ipiñi ziuk zeotzaren? pixu bat ipiñiko ziuk (440), baña aprobau eingo gaittuk (441), eta artu guk kotxian da jun zian bixak (442) ta ez dakit-ba, milla errial edo, ez dakit ze (443) kendu ziu en ayek (444) eta eiñ (445) bitartian dilijentziak, eiñ bitartian dilijentzia lzan zian (446), eta beintzat, milla errialen jabe (447) ez giñan geixo eiñ (448), baña Jaungoikoak bakia bai, eman tziun (449). Arek ee (450), juten giñan urtian beñ eo (450), bitan ee (451) juten giñan, neu e bai (452), eta nee (452) senarra askotan juten tzan (453). Ni juten asi nitzanian oztu zan, eta atzenian (454), jausi alfonbran baten eta kaderia puskuau eta anditxik (455) il zan, eta geau zinean (456) emakumeik bee (457), emakumia biar (458), eta neskame bat ekarri zeen (459), emakumia blar eta neskame bat ekarri zeen, or Bizkai aldetik nunbaitetikan ee (460) eta puska baten (461) euki e (462) bai, baña etzitzakuen gustau (463) makala zala ta atzea (464) bialdu zeen (465) eta orduantxe obligau zian (466) andra billa ta orduantxe ni etorri nitzan onaa (466). Aura gero, geixao (467) neska aren arrastoik etzan eon (468). Orduan etzan automoillik eta dana? ara ta ona jaxian (469) etortzen zanian juten tzian (470), eta gero egatzixai (471) jaten emateko re (472), eskallean bera bajau eziñ eta attak ee (473), emakume aura etzaulla (474) ondo emakume aura, ta atta (475) txarre-na; aura despatxau eiñ bear tzala (476) ta ala despatxau zeen.

- Zer familia izan zenduan?

- Lau ume, ta zarrena auxe ta gazteena zeian daukat, Irun'en. Donostia'n bizi da kasik e! (477), Donostia'n blzi da. Beori bezelako kaballero zar bat zai-

tzen dao oaiñ (478), eta etortzen da amarretako eta arratsaldian eta laurak ar-
teko serbiziva eitte u (479), eta orduan beste emakume bat etorte a (480) erre-
lebuan, eta geo (481), gizonak an dauka taller-zulu ori, ta ango goraberak eit-
ten dizko (482) gizonak, ta Donostia'n nai du bizi, baña karua Donostia.

Beste alaben bat eo ba-dezu...

- Autxe (483), Elgoibar'n daukadana, etortzen dana ta ez daukat besteik
(484) eta mutilla beti an, iIII kuarletean.

- Ñola il tzan?

- Ba, gripe bolaria zeuan iñolaze (485) eta ordurako instruziva ikasten ibilli
ta banderia jurau ta bajauta zeuen kuarletea (486), eta emendik aurrea (487)
seguru sabado-domingo, ta alaxe, etorri mordoxketan etorri zan, eta sabado-
domingon etorri tta (488) eztula, ta orrela eztulka jun biar (489) al dek e (490)
kuartelea? (491) Ba, bai; ze ingo zat pa nei? (492) Beste geixo antxe daure
(493), ta ni antxe eongo (494) naiz bestiekiñ. Ordurako, kontuizu (495), aura
etorri zaneako e (496), ai zian (497) pillatzen mordua e! Len esan deana (498),
gripia, bata bestiai (499) pegau e (500) bai, ta orrela esan tzian (501): neuk
ingo txat ori (502), oste ori dana nik ingo txat (503), ta ez!, antxe eongo
(504) naiz, eta ala, jun tzan, ta zer da ta (505), San Frantzisko bezperako, mu-
tilla ill, kuartelian. Ez takiu (506) ze izandanikan (507); ori ez deu (508) jakin se-
kula re (509), ta kitto; ikaragarria! besterik ez. Eta emengo mutillak zeuren
(510) bat Deba'kua beintzat (511), ta emen goikua zan bestia, aen (512) kinttia
(513), ta or aurrekua re (514) bai, aen (515) kinttiak zian, bañan etzan or bes-
teik eongo (516); Deba'kua eongo zan beakiñ (517), Deba'ko bikayua re (518),
ttiki ori, aretxen (519) kintakua da; ta guk oraiñ aura, gizona gendukan (520).
Etzuan arek oyian (521) pasauko egun bat, ta neska koxkorra ta mutil koxko-
rra, ayek, nik orduantxe estreñeko (522) angulak atea nittuan (523) ibai on-
duan, eta Goikoetxea (524) jun nitzan txarrixa (525) lanak eitea (526) eta atta
jun zan bizimayakin (527) lanea (528), ta neska kozkorra ta mutil kozkorra,
orren urrengo beste aizta buru zela itxian (528), eta ari illuntzian ospa eiñ (529),
artu baya ta kalia batak eta paola bestiak eta aiba kamiñun beera, eta or ee
(530), goiko tunel-bokian pare aldean, ortan eo (531), zeoze (532) beratxea-
gon bajau ingo dia (532) ondoa (533), eta beintzat, aprobau. Aitta (534) etorri
ta umiak ez etxian (535); aitta (536) lelengo itxea (537) etorri zana. UmeeK nun
dia? (538) Angulata (538) jun. Aik (539) angulata? (540). Ba, nei iesi ein die
(541), ta or aurreko gizona, ayetxek (542) bezela, or beste aldetik, jun da an;
ta aretxek atea kamiñoa (543) ta bialdu kamiñuun (544) gora, ta aittakiñ topo
kamiñuan, bata goitik bera ta bestiak betik gora. Angulaik (545) ez, baña ayek
eiñ tzeen aura ba (546). Ta gústau eitten zitzakon (547) ari orrela ibiltzia angu-
laetan da; oyek gauzak nekau eitten zon (548) kiian?, baña gero aundiko za-
nian, arek angulak arrapau zittun (549).

Deba'ko Sindika baserriko Arriola ta Albisu'tar Josefa'k egindako izketaldia,
aberatsa, bizia, ta errikoia da benetan. Egindako azterketan, adierazgarri auek
aurkitu ditut:

1.- Itz egiterakoan, izkiren bat "jatea".

- 2.- la, ixa biurtzea; ie, ix; iu, ixu; io, ixo.
- 3.- e, i biurtzea.
- 4.- t ordez, tt erabiltzea.
- 5.- z, tz biurtzea.
- 6.- Esaldi jator asko.

ITZ EGITERAKOAN IZKIREN BAT "JATEA"

2- bautaizau = bautizatu; 6- geo = gero; 7- beatzi = bederatzi; 11- ze = zer; 13- eskolaa = eskolara; 15- ne = nere; 20- geo = gero; 22- San Josei = San Jose'ri; 24- Ama Doloetakoai re = Ama Doloretakoari ere; 25-26- Aman lanak eiñ = amaren lanak egiñ; 27- kantau - kantatu; 31- geo = gero; 33-34- auzoa otar-lepaka = auzora otar-lepakara; 37- bost urte abetan ee = ere; 39- eiñ egiñ; 43- eitten = egiten; 47- andreik etzeukan = andrerik etzeukan; 50- ni jun da = ni joan da; 52- etortzen zan mezetaa = mezetara; 57- lana eingo bada = egingo; 58-59- oaiñ ee = orañ ere; 61- milla gauza dia = dira; 62- danak jun da = joan da; 64- eta aek = aiek; 65- geo ematen zuana = gero; 66- pezeta bat eman bae jun = eman gabe joan; 68- eitten zuan = egitten; 70- otela itxitta re = itxita ere; 72- eman be = eman gabe; 73- nlk euki ez = edukl; 79- zeatik ee = zergatik ere; 76- eon giñanak = egon; 80- zortzireun pezetakua re = ere; 84- gertatu zitzatten gaiñea = gaiñera; 87- atzetik eoten tzan = egoten; 90- ierri = igerri; 93- eingo zu = egingo dezu; 94- kontau = kontatu; 97-98- jun biar deu = joan bear degu' 98- oaindik = oraindik; barrakaik ez det ikusi = barrakarik; 102- urte baten = urte batean 104- eon nai zuan = egon; emen ee = eme ere; 108- artu zeen = zeben; lo eiñ = egiñ; 109- eingo zittuan = egingo; 113- amakiñ erretratuak atera = amarekiñ; 114- txarrixa re ateata = txarrixa ere aterata; 117- eaman zittuen = eraman; 118- emen ee = ere; 120- beela aztu = bereala; 122- 123- ni ni onaa, etxe oneta = ni onara, etxe onetara; 124- etorri nitzanian ee = ere; 129- eon, eon = egon, egon; 130- eiñ reuiniva = egiñ; 132- eun baten = egun batean; 135- baguaz aurea = aurrera; 136- ataiko bidian gora = atariko; 137-38- oaindik ez da amar egun = oraindik; 142- ereten det ataira = atarira; 143- bota orraa = orrera; 144- zaku mordua eon = egon; 145- leno = lenengo; 146- saunka eiñ = egiñ; 147- ze palta da? = zer; 151- zeukeen laata = lagata; 152- ixillik zeuen = zeuden; 154- eztaikat beste penaikan = penarikan; 155- neureaga = neuregana; 156- mastrildu eingo nuan = egingo; 160- esan biautena = bear dudana; 165- nee gizona = nere; 167-68- noaño etorri gean = noraiño etorri geran; 169- ez dao = dago; 171- bi eo iru = edo; 176- poliki al da = ari; 178-79- ez dittu eitten = egiten; 184- Mendaro'ra ogitta = ogitara; 185- erotta etxian = nere amaren; 189- beatzi urte = bederatzi; 191- ze urte = zer; 194- errotaa aittak bidali = errotara; 196- or izango da = da; 200- arrezkeo = arrezkero; 201-202- makiña bat biaje ein det nik errotaa re = egin det errotara ere; 205- desmontau eiñ zeen = egiñ zeben; 207- leno = lenago; 211- eiñ da do = egin da dago; 222-23-25- oaiñ baño leno = oralñ baño lenago; 224- onaa etorri = onara; 226- sokia irrixoa = irrixora; 230- itxi iñ zeen = itxl egiñ zeben; 231- eziñ sartu be eon = sartu gabe egon; 212-214- toki askota eáman dittue = toki askotara eraman dittue; 220- geiagota re bai = geiagotara ere bai; 221-eaman zittuela = eraman; 236- aura bota zeen = zeben; 237-38- terenua

ez do oaindik salduta = ez dago oraindik; 240- salduta daure; daude; 240-
etxia re bai; ere; 245- esaten zioen = zioten; 252- bestiak baaki zer = badaki;
254- ogeita beatzi = bederatzi; 257- gu presentau; presentatu; 267- eta or do
= or dago; 268- orrela do = dago; 284-84- obria eiñ da nee suñak = egiñ da
nere; 289- zauenak atea = zaudenak atera; 291-, onaa = onara; 292- nee gizo-
na = nere; 293- ortxe zeon = zegon; 296- kargau dee = kargatu dabe; 298- ori
eman emendik = eraman; 299- nik esan deala = dedala; 301- ekarri ba'nuan
onaa = onara; 302- Ave Mai Puixima = Ave Maria Purixima; eaman, kargau ta
bota orraa = eraman, kargatu ta bota orrara; 304- or eamango deu = or era-
mango degu; 306-7- guk ez deu ikusi geixao = ez degu ikusi geiago; 309- pa-
sau ote dial = pasatu ote dira; 311- meezi = merezi; 313- oaiñ gañea = oraiñ
gaiñera; 315- errekoa do = dago; 316- montoya eiñ = egiñ; 316- eiñ da dao =
egiñ da dago; 317- zekiñ garbiu bear deun = zerkiñ garbitu bear degun; 319-
nola atea= atera; 320- ta oaiñ ia = oraiñ ia; 322- eskau zeen = eskatu zeben;
323- onaa etorri = onara; 327- maniobra eiñ = egiñ; 328- ipiñiko zeela = zebe-
la; 329- diru asko eskatze ez ba'gendun = eskatzen; 330- biiko zula = bearko
zuala; 334-35- guk ez deu pagau biar = ez degu pagatu bear; 335- pagau bii-
zue = pagatu bear dizute; 336- esan zuan beak = berak; 337- jun zan da geo
= joan zan eta gero; 339- esan zuan beak = berak; 337- jun zan da geo = joan
zan eta gero; 339- konforme gerau; geratu; 340- enterau zan = enteratu; 341-
ze esan tziguen = zer; 342- geo = gero; 345- danak kobrau balia = kobratu
baljra; 349- ez genekixen ori zezan = zer zan; 353- tallerrea = tallerrera; 355-
orrela mouzkoai = mouzkoari; 359 jun biar deu = joan bear degu; 360- meikue-
na = medikuarengana; 361- esan zian = zidan; 363- berua re ez = ere; otza re
ez = ere; 367- eortzixaz = egortzixaz; 368- sukaldean eon = egon; 370- geixo
alde eiñ = geiago alde egiñ; 371- eoten nitzan = egoten; 375- nekau eo ne-
katu edo; 376 San Rokia'k aldera eo = edo; 378- gobernatze ittuen = dittuen;
380- gaiñea usten da = gaiñera; 381- aaba = ara ba; 383- esan zian = zidan;
385- gaiña = gaiñera; 387- dana toki batea = batera; 388- bixtau ezkeo = ez-
kero; 389- operaute euki et = operatuta eduki det; 390- ia ze emate izun = ia
zer ematen dizun; 391-92 oaiñ beak ez dakixela = oraiñ berak; 394- beak ope-
rau, bai = berak operatu; 385- eon zian = egon ziran; 399- beakiñ bakarrik =
berarekiñ; 401- karga geixao = geiago; 402é iñolaz ee = ere; 403-4- dirui kas-
tatzeik etzuan biar = dirurik kastatzerik; 406- jungo naiz = joango; 407-408-
beñee jun eakustea = beñere joan erakustera; 408-9-10- eaman tzuan ua re;
izan ee = eraman tzuan ura ere; izan ere...; 413- etortzen zian = ziran; 417-18-
geo zeoze txarra = gero, zeozer txarra; 419- umiak ee = umiak ere; 422- gel-
dittu zian = ziran; 423- attakiñ = aittarekiñ; 426-27- ni onaa etorri baño leno =
ni onara etorri baiño lenago; 430- berri ee - ere; 431- eta atzea ez gendun bee-
la eman = atzera ez gendun bereala eraman; 434- noiz eiñ genduan = egiñ;
437- geixo eztiu = geyago ez diagu; 438é lengusuak zian = ziran; 439- nee se-
narra = nere; 442é jun zian = joan ziran; 443- ez dakit ze kendu = zer kendu;
445- eiñ bitartian; egiñ; 446- izan tzian = izan ziran; 448- ez giñan geixo eiñ =
geyago egiñ; 449- eman tziun = eman tzigun; 450- arek ee = ere; 450-51- beñ
eo bitar ee = beñ edo bitan ere; 452-53- neu e bai eta nee senarra = neu ere
bai eta nere senarra; 454- atzenian = azkenian; 456-57- emakumeik bee géau
zinean = emakumerik gabe geratu ziranean; 459- ekarri zeen = zeben; 461-62-
puska baten euki e bai = puska batean eduki ere bai; 463- ez gustau = ez gus-

tatu; 464-65- atzea bialdu zen = zeben; 466- obligau zian = obligatu ziran; 466- etorri onaa = onara; 468- etzan eon = egon; 469- etzan automoillik = automobillik; 470- juten tzian = joaten tziran; 472- jaten emateko re = ere; attak ee = aittak ere; 474- etzauela ondo = etzegola ondo; 478- zaitzen dao oaiñ = dago oraiñ; 480- emakume bat atarte a = etortzen da; 481- eta geo = gero; 482- eitten d;zko = egitten dizkio; 484- ez daukat besteik = besterik; 485- gripe bolaria zeuan iñolaze = ioñolaz ere; 486- kuarletea = kuarleteara; 487- emendik aurea = aurrera; 489-90-91- eztulka jun biar al dek? = joan; kuarlelea = kuartelera; 494- eongo naiz = egongo; 495- kontuizu = kontu egizuñ; 496- etorri zaneako e = etorri zanerako ere; 497- ai zian = ari ziran; 498- len esan deana = dedana; 499- pegau e bai = pegatu ere bai; 506- eztakiu = ez dakigu; 508-09- ori ez deu jakiñ sekula re = ez degu jakiñ sekula ere; 512- aen kinttia = aien; 514- aurrekua re = ere; 516- besteik eongo - besterik egongo; 517- eongo zan beakiñ = egongo zan berarekiñ; 518- bikayua re = ere; 523- atea nituan = atera; 524- Goikoetxea jun = Goikoetxera joan; 526- lanak eittea = egitera; 528- lanea = lanera; 529- ospa eiñ = egiñ; 530- or ee = ere; 531-32- oré tan eo zeoze = ortan edo zeozer; 522-23- bajau eiño dia ondoa = bajatu egingo dira ondora; 537- Itxea etorri = etxera; 538- nun dia? dira; 539- angulata jun = anguletara joan; 539-540- a;k angulata? aiek angulatarara? 541- nei iesi eiñ die = neri igesi egiñ die; 543- atea kam;ñoa = atera kamiñora; 544- aittakin topo aittarekin; 545- angulaik ez = angularik; 546- eiñ tzeen = egin zeben.

2.- IA, ITXA BIURTZEA; IE, IXE, 10, XIO; IU, IXU

1- jaixo = jaio; 16- geixaokiñ = geiagorekiñ; 21- aurrosaixua = arrosaiva; 43- aparixa = aparria; 44- nagusixa = nagusia; 45- aundixena = aundiena; 53- zortxixan = zortzian; 67- egixa = egia; 91- bixaldu = bialdu; 114- txarrixa = txarria; 119- barrixuan barriauan; 220- geixagota = geiagotara; 226- irrixoa = irrioa; 247- bixak = biak; 294- asko geixo = asko geiago; 297- ez daixela = ez dezatela; ez daiela; 300- naixo = naiago; 307- ikusi geixao = geiago; 338- etzekixen = etzekien; 348- ez genekixen = ez genekien; 350 olako tokixan = olako tokian; 354- errixan = errian; 367- egortzixaz = egortzlaz; 370- geixo alde eiñ = geiago; 373- ibillaldixak = ibillaldiak; 393- ez dakixela = ez dakiela; 401- karga geixao = geiago; 415- gexeña = geiena; 452é jua zian bixak = biak; 467- gero geixao = geiago; 469- jaxian etorri = jaiean; 471- egaztixai = egaztai; 493- beste geixo = geiago; 525-txarrixa = txarria.

3.- E, I BIURTZEA

4- itxekoak = etxekoak; 39- itxe orretan = etxe; 41- itxia eiñ = etxea; 233- lustre ederra zeukan itxiak = etxeak; 335- pagau biar = bear; 404- etzuan biar = bear; 419- umiak ee = umeak ere; 458- emekumia biar = emakumea bear; 528- itxian = etxean; 435- umiak ez etxian = umeak ez etxean; 537- lelengo itxea etorri zana = etxera.

4.- T ORDEZ, TT ERABILTZEA

3- geldittu = gelditu; 5- aittak = aitak; 8é nittuan = nituan; 10- ittulan **Itulan**; 12- nittunetik = nitunetik; 23- eitten = egiten; 32- nittuneako = nitunerako; 35-

asitta = asita; 36- nittuala = nituala; 43- eitten = eiten; 49- zittuzten = zituzten; 54-68- eitten = egiten; 70- itxitta = itxita; 70- zittun = zitun; 75-77- garbittuko = garbituko; 84- zitzatten = zitzaten; 88- zittunean = zitunean; 107- attak = aitak; 110- zittuan = zituan; 117- eaman zittuen = eraman zituen; 126- aittak = aitak; 134- etorri tta = etorri ta; 171- eittelttu = egiten ditu; 172- esateittu = esan ditu; 174- esaten dittu = esaten ditu = esaten ditu; 177-178-179- ez dittu eitten = ez ditu egiten; 190-92- nittuanian = nituanean; 195- aittak = aitak; 212- eaman dittue = eraman dituzte; 215-221- eaman zittuen eraman zituzten; 235- zaittu eziñ = zaitu eziñ; 250- jaso zittuela = jaso zituztela; 251- ez dakit ze egitezeela = egiten zebela; 266- kasoik eitten = kasorik egiten; 272-74- esango nittuke = esango nituzke; 275- nere attak = aitak; 284-85- sartu zittuan, geldittu zian = sartu zituan, gelditu ziran; 290- atea ittue = atera ditue; 373-374- eitten zittuan = egiten zituan; 378- nola gobernatzin ittuen = dituzten; 386- eitten zuan = egiten zuan; 384- garbittu gabe = garbitu; 400- bakarrik geldittu = gelditu; 423- aittakiñ = aitarekiñ; 435- nik eitten nuan = egiten nuan.

5.- Z, TZ BIURTZEA

17- jun tzian = joan ziran; 96- ogera al tzuaz? al zoaz? 109- an iñ tzuan = egiñ zuañ; 127- txokauta eon tzan = egon zan; 36- esan tzian = esan zidan; 146- ota ateratzen tzun = zuan; 205- desmontau eiñ tzeen = egin zeben; 213- alttak esaten tzuan = zuan; 230- itxi iñ tzun = egin zuan; 286- desplojuak etzian = etziran, ez ziran; 326- esan tzuan = zuan; 342- esan tziguen = ziguen; 449- eman tziun = zigun; 468- arrastoik etzan eon = arrastorik etzan, ez zan egon; 469- etzan automoillik = etzan ez zan automobillik; 470- juten tzian = joaten ziran; 474- etzauela ondo = ez zegola ondo; 476- eiñ bear tzala = egin bear zala; 501- orrela esan tzian = esan ziran; 546- aiek eiñ tzeen = egiñ zeben.

6.- ESALDI JATORRAK

- 18.- Beste danai dotriñakua buruz erakutsi niñauan.
- 28.- Aittak kostatik eamaten zigun notla.
- 30.- Deskuidatze bat zeukat.
- 34.- Auzora otar-lepakara bialdu niñuen.
- 38.- Aaszensora Deba'n orduantxe zala lelengoa.
- 40.- Etxe orretara ni, aurreko egunean edo aurrerokoan joan nitzan.
- 42.- Tellatuan muturra zelebratzeko, aparixa degu.
- 45.- Deba'n zanikan esateko gizonik aundixena.
- 48.- Andria oso gazteik jun zitzakon.
- 52-53.- Santixo'ko Prantxixka zortzixan beñ mezatta etortzen zan.
- 55.- Tertulixia eiñ eta arteko esnia kobrau eitten tzuan.
- 60.- Enaiz akordatzen beste gauzekiñ.
- 63.- Señoritu bat gelditu zan atzea.
- 69.- Ñoiz etorriko zai.
- 78.- Iya milla pezta ingurua: or izango zan: zeatik ee...
- 81.- Aura zan gure zea.
- 83.- Zazpirak laurden gutxivan jaikitzen giñan; or, buelta arta, or ibiltzen giñan.

- 87.- Neska lanean ipiñi ta atzetik eoten tzan.
- 96.- Ñi oerako moduan negon.
- 111.- Lurra galbaitzen ibilli zan.
- 116.- Itxe bueltan ibilli zan.
- 125.- Oralndiokan, ala ibiltzia asko txokauta eon tzan.
- 128.- Ez daukat nik arentzako beste gauzaikan.
- 139.- Txakurrak eskandalu baten zeuden.
- 140.- Nere burua lotara eziñ da nabillen, aspirina artuta.
- 149.- Zela ala, onaaño erten det.
- 153.- Bigarrego erten nuanian, ixillik zeuen.
- 154.- Eztakat beste penaikan.
- 173.- Lantzian puntara bat botatzen du.
- 182.- Nik amalau urte inguru izango nittun.
- 193.- Astua bidia erakustekouan bidali niñuan.
- 226.- Leiotik sokia irrixora bota ta arrainka eitten zan.
- 229.- Prailliak kastau zianian.
- 239.- Osteantzeko lur danak salduta daure.
- 243.- Urtiin-urtin drogan ibiltzen tzian.
- 256.- Frontoya ogeita beatzi durotikan atera zan saltzera.
- 259.- Ez genuan jakiñ eiñ ee.
- 261.- Ixil-ixilik artan artuko genduan guk ori.
- 262.- Baña batakou pujia, besteko pujia, zeeraño jaso zan.
- 295.- Eta esan zian ezik...
- 314.- An andiko kamiñu zaarra.
- 324.- Atta zana eskasa zeuela.
- 340.- Gero enterau zan itxuria.
- 344.- Alakon baten kobrau zan.
- 347.- Dana dala, aura bukatu zan.
- 353.- Josten eittea bialtzen niñuten.
- 376.- San Rokiak aldera eitten du bere asialdixa.
- 379.- Ñi aldian gaztia zan.
- 402.- Iñolaz ere etzuan nai.
- 416.- Ñeuk etzikanan gaizki.
- 420-21.- Beintzat, zela-ala, umlak illak ba-zian.
- 424.- Bigarrena zorau eiñ tzan.
- 428.- Santagedan eukialdixa eman ta mejorau zala ta ekarri, baña aura atzea leenea.
- 431.- Eta atzea ez genduan beela eaman.
- 447.-Milla errial aien jabe ez giñan geixo eiñq
- 455.- Kaderia puska ta anditxik il tzan.
- 461.- Puska baten euki e bai.
- 485.- Gripe bolaria zeuan iñolaze.
- 492.- Ze ingo zat pa ni?
- 505? Jun tzan, ta zer da ta, mutilla ill.
- 506.- Ez dakiu ze izandanikan.



GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUSKERAZ EGINDAKO UFATSTXI KIAK ALDE TA ALDI

Ona emen alkañ buruz ia berdin diran bi itz: ALDE, ALDI. Baña beren egituraz ia berdin izanik, beren zentzunaz bi asmo oso ezberdinak adierazten dituztela ikusi bear. Ta egokia edo dirudi bi asmo oyek aztertzea ta berai buruzko gogayak ere argi ikusteko alegiñak egitea. Goazen bada la ori egitea nolabait lortu ote dezakegun.

Zer ulertu bear da ALDE itza esatean ?, zer ALDI itza erabiltzean?. Beste eraz ere: Zer ote da ALDE?, zer ote da ALDI?.. E ezagoa dirudi lenengo galderari erantzutea biga enari baño. Ta ba-dauzkagu bi itz oyetatik sortutako beste bi auk: ZABALDE, ZABALDI, ots, zabala dan ALDEA ta zabala dan ALDIA; lits bereziak erakustean.

ALDE itzaren zentzuna argi dagoela uste dugu, TOKI edo LEKU beste bi itz oyen atzekoa dala agertzen baita, eta gure soin-zentzuetaz bereala oartu dezakegu; beraz, lu a ta lur gañean edo azpian naiz urpean eta goi-goyeneko zabalde guzian dagoena ere ALDE edo deitu dezakegu, ALDE edo da gayezko asmoa bera daukana. O elaxe dala-ta, gure baitan ongi zeda dezakegu bere zentzuna.

Eta ALDI zer ote da ?. Nola zedaritu bere zentzuna ?. Gure soñaren zentzuek ezpaitira gai ALDIA oartzeko, nola ikusiko dugu ongi zentzun ori ? Eta itz au egunero ta eten gabe darabilgu lits batzuetan barna, onela edo: eguraldi (egurats + aldi) ona dago; aspalditik, aspaldian, aspaldiko, ..., antziñako asmoaz; ALDIA izakien iraupena adierazteko; itzaldi, ibilaldi jayaldi, eroaldi, alpe aldi ta abar eta abar.

Guzia ALDI'an dagoela argi dago, notiñak eta abereak, landare ta gauza guztiak, ura, aldea, sua ta lu a, odei ta laño, otz eta bero, eguzki, ilargi ta iza ak, ..., oro. Bizia era ALDI'an barna irauten ari da. Apika ALDIA biziaren bidea da esan genezake, bide zabala noski, zedariturik agertzen ez dan bidea, norabiderik gabe agertzen zaigun bidea, baña bai benetan bidea dala, utzi ezin ditekene bidea eriotzean ezpada, beraz bakoitzarentzat iltzean amaitzen da ALDIA; edo iltzen dana da ALDIA uzten duena, edo ALDI'tik at doala. Naiz

Ludi'an naiz zabalde osoan, bizia dan bitartean ALDIA ere ba-dagoela oartu bear; eta ALDEA dan guzia be ALDI'an kokaturik ikusten dugu.

Alakotz, ALDIA ALDEA baño lenagokoa dala esan bear; baña uler ote diteke ALDIA ALDEA gabe?, zabaldea zabaldea gabe?; ba-dirudi biak BETIKOTASUÑ'ean dagozela, edo ortik atera dirala; nola baña ta noizdanik eta noiz arte?. Egltan bizi guzia ere BETIKOTASUÑ'ean dago, era ontaz ala artaz; o engatik bidezkoa bide da ALDE ta ALDI be berdin dagozela, gizonarentzat uler gaitza dan BETIKOTASUÑ'ean; eta BETIKOTASUÑA, betikotasun izateko, iñoiz ezin izan diteke asia, iñoiz ere ez da amaituko; nola ulertu ori?. Yainkoa betikoa dala siñisten dugu, baña Bera ez da BETIKO-TASUÑA, ez eta betikotasuna YAIÑKOA; Yainkoa izan bear BETIKOTASUÑA baño lenago ere; baña, esan dugunez, BETIKOTASUÑA'k ez asia ez eta amairik be ez dituela egitzat artzen badugu, nola guzti ori ulertu ?.

ALDE TA ALDI - II

Ba-dauzkagu beste bi itz: BETE ta BETI, len esadakoak bezala beren ize nean la berdin dirala, baña beren izanean oso ezberdiñak agertzen zaizkigu nak. BETE itzaren sentzuna, ALDE lez, gure zentzuek oar dezakete, baña BETI itzarena ezin, ALDI bezela; alakotz, bi itz-bikote oyek ba-dute alkañ buruz zer ikusi, ta BETI'k ere BETIKOTASUÑ'aren zentzuna bera du. BETE esatean nolabait ALDE be adierazten dugu, ta BETI esatean ALDI ere; BETE'k ALDEa dan guzia berean ote du ?, ta BETI'k be ALDIa dan oro ?.

Ba-dugu oindiño BETE antzekoa dan beste itz bat, BETA, zerbait egiteko bear dan astia adierazten duena; ta ASTI'k ere ALDI'aren zentzuna duena, orobat beraz BETA'k be. Eta azkenez ALDE ta ALDI, BETE ta BETI, ta ASTI, BAT egitekoak al dira bikote bakoitzean ?, BAT ori BETIKOTASUÑ'ean murgil durik geratzeko ?.

ALDIa igaroten dala esaten da, baña au ez da benetan egia, ta asmoa zeatzago adierazteko, auxe da esan bear dana: Au, ori ta ura, zu ta biok, oro, aldian barna igaroten gera, ALDIa igitzeke geratzean; eta oraingo gure ALDIa aspaldikoa bera da ta u engoarena be, noski. Beraz ALDIak blzia dan guzia In guratzen du ALDEa dan guzla bezela. Alan eta guzti, betikoa ez izanik, ez, jak iña, BETIKOTASUÑA, noizpait edo jayo zan, asi zan, norbaitek so erazita, eta norbait ori, bidezkoa danez, YAIÑKOA izan bear, ezin edo beste batengan ol doztu. Asi ezkerero amaitzea ere beata bide zayo, ta amayera ori YAINKOA'k be ipniko duela uste dezakegu.

Alakotz, geu ta oro ALDE'an gagozela egitzat artu bear dugu, ta, beste al detik, ALDI'an barna bizi-izatean goazela be; noruntz ? baña, galde dezakegu, ta, zalantzik gabe, BETIKOTASUÑ'eruntz erantzuteko, YAINKOA'ganuntz az kenez. Ortan al dago, nolabait zedariturik, gure izatearena ?; ezin ukatu o elatxe bederen dirudiela.

ALDEa dan guztia ulertzekoa da gizonarentzat. asieran esan dugunez bere zentzuek oartu dezaketelako; ezin berdin jokatu ALDI'arl buruz. Alaz ere neuñ batzuk jañ al-izan zaizkio ALDI'ari, naiz eta ortarako ALDE'aren laguntza erabil tzean; EGUÑ, IL eta URTE dira neu i oyek, edonork dakienez onela zedaritu rik: EGUÑA, lu ak bere ardatzearen inguruan birunda bat egiteko beata zayon ALDI-zatia da; IL'a, ilargiak lu aren inguruan beste blrunda bat betetzeko. Be raz, iru neuñ oyetan ALDE ta ALDI asmoak alkartuta dagozela argi agertzen da. Eta ba-dagoz beste ALDI-neuñak, esandakoak bezela ez diranak, naiz eta

beren asmoai dagozkiela; gizona da bere bea etarako jari dituen, auetxek: ordu ta bere zatiak eta mendea. Norbait edo zerbait igaroten dala edo irauten duela, ALDI'aren zati bat adierazteko eiki, ALDI.'a bera beti bat igtzeke gertzean.

Guziok gagoz, bizi guzia bezela, ALDE'an eta ALDI'an betebetean. Egitan ALDE'an gagoz eta ALDI'an gabitz; beraz EGOÑ eta IBILI aditzak ALDE ta ALDI'ari dagokiez ondo; ta egon bagagoz nunbaitetik ETORI gera, ta ibili bagabiltz nunbaitera JOAÑ bear dugu. Eto i ta egon, joan eta ibili, ora lau egipen iragangaitzak ALDEan eta ALDI'an burutzen diranak. Eta lau aditz oyek, iragangaitzak be izanik, oyetxek ain zuzen ditugu aditz iragangaitz nagusienak euzkeraz, ALDE ta ALDI asmoai buruz zuzen dagozkienak.

ALDE TA ALDI - III


ALDE ta ALDI itzak beste itzekin alkartzen dira itz be iak egiteko ta beste ainbeste asmo ezberdinak adierazteko; ala era itz beti oyetan beti ikus dezakegu ayen zentzun nagusia guztien oñari bezela agertzean: sortalde, sartalde, ipatalde, egoalde ta abar; eta batzaldi, itzaldi, gizaldi, ibilaldi ta beste ainiz. ()tela izkuntzan eta bizian gatantzi aundia dutela erakustean.

Beraz, zentzun nagusi oyetan begiratu bear ditugu bi itz auek bereziki. ALDE'an gagozela ta ALDI'an gabiltzala esan dugu len, eta o ela dago ta otela dabil bizia dan guztia ere, ALDE ta ALDI zentzunak bizia izateko be ezinbestekoak bezela agertzen zaizkigularik; bigatena lenengoa baño ulertzeko zal agoa izanik, ain zuzen ere, gure zentzuek ortarako bide ez diralako. Baña baitezpadakoa dugu zentzun otezaz itza erabiltzea ainbeste asmoak egokiro adierazteko.

Bai, ALDE'an eta ALDIan, zabaldean eta zabaldian ari da beti gure bizia, gizadiarena osorik. Ondo atematen dugu ALDE'an egotea, ez ain ongi ALDIan ibiltzea, len oaterazi dugunez, gure zentzuek lenengo asmoa nolabait ikutu ta ikusten dutelako, tan bigatena ikusteko ta ikutzeko gai ez diralako; nork ukatu, alarik ere, ALDI'an barna bizi guzia eten gabe ari dala?. Bakoitzaren bizia jayotzean ALDI'an sartzen dala oso argi oartzen da iltzeari irteteko; ta orixe gertatzen zayo bizi guziari ere. Alakotz, ALDI bizia baño lenagokoa da, zalantzik gabe - Ludi ontako biziari buruz ari gera, jakiña, mintzatzen - baño ALDIA amaituko al da emengo bizia itzali ondoren?; ata erantzun egokia ez duen galdera; agian bai ta orduan ALDIA bizia izateko edo sortua dala uste dezakegu ta beste ainbeste ALDIA ere. Ta ALDEa ALDIAn izateko sortua izan dala ustea bidezkoa da; ta otela izanik ALDIa dugu lenengoa izatea; nola ?, eziña edo zaigu nola ori atematea, apika betikotasunaren zati bat baño besterik ez edo dala.

Eta bizia bera bezela, egitan, gizonarentzat ezkutuki aundia bezela begiratu edo bear dugu, sakon eta gelga i dagoen ezkutukia; ta adimenak sakontasun ortan sartzeko almenik edo ez du. Oregatik, ALDE ta ALDI asmoen zentzuna emen azaldu dugun neu ian ulertu edo dezakegu bakatik.

URESTARAZU'TAR AÑDOÑI



GOTZAINAK ETA EUSKEREAA EUSKALERRIAN

ELEI ZEA BARRI -EMOI LLEA

Jakiña da, Jesus'ek emon eban agindua dala, Eleizeak bete bear dauan agindua, Barri Ona, Jesus'en barria Mundu guztira zabaltzea.

Balña barria zabaltzeko bide eta era asko dagoz, diran bide guztietan, zelan edo alan, izkuntza agertzen dala.

Barria artu bear daben erritarrakaz alkartzeko eta bizi izateko be, bearrezko gauzea da euren izkuntza jakitea. Erri batera sartu nai ba'dozu, bertako izkuntza ikasi bear dozu.

Barri-emoilleen buru ta nagusi, Gotzalña da, eta Gotzaiñak errikoa izan bear dau, orra or zio bi, Euskalerriko Gotzaiñak euskaldunak izan daitezcan.

Baiña artu dagiguzan urak goragotik, jakingarri garbiagoak entzun dagiguzan.

KALAGURRI'n

Gutziz urrin joan ezkeru, euskaldunak Gotzain bat baiño geiagoren ardura-pean aurkitzen doguz: Autrigoiak Balpuestan, Barduloak Iruñan, Karistioak Armentian... baiña orain gizaldi batzuk dirala, guztiok geratu giñan Kalagurri'ko Gotzaiñaren ardura-pean.

Zelan jokatu eben kalagurri'ko Gotzaiñak euskereari buruz?

Jakiña da, aldi aretan izkuntza idatzia ia beti izaten zala erdere eta Ñaparroa'ko idazkiak, udaletxeetan eta erakundeetan, guztiak erderaz agertzen dirala, Gastelan bertan baiño be lenago artu eben naparrak gaztelerea euren izkuntza lez, gastelerea edo erromantzea be;ntzat.

Aldi orretan Kalagurri'ko Gotzaiñak ardura aundiz diñotse Bizkaia'a eta Gipuzkoan eta Ñaparroa'ren zatiren baten bear ba'da, euskaldunai euskeraz berba egiteko eta katekesi-liburuak be euskeraz argitaratzeko agindua emon. eban.

Abadeak, antza, gure errietan be erderaz berba egiten eben, iñok ulertu bari. Gotzaiña konturatu zan arazo orretzaz eta agindua emon.

GAZTEIZ'en ERDELDUNAK

Kalagurritik aske sortu zan Gazteiz'ko Eleizbarrutia, bere aldean Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba zituala eta emen izan ziran gotzain guztiak erdeldunak izan

ziran, azkenengo aldian Mateo Muxika gotzaiña izendatu arte. Mateo Mujika'ren ondoren jazarpen aundiaren aldia izan zan, eta gotzaiñak Franco'ren baimenaz etorten ziran. Muxika erbesteratu eban agintari maltzur arek bere jokatideko gotzaiñak ipiñi ebazan. Lenengo, arduradun lez, Xabier Lauzurika gotzaiña. Onen aldian 500 abade izan ziran zigorrez erbesteratuak. Euskera ba-ekian, baiña ez zan euskalzalea.

Urrengoa, Karmelo Ballester, erdelduna zan eta ez eban ezertarako kontuan artzen gura arazorik.

KARMELO Ballester'ek eta bere aurrekoa izan zan Lauzurika asko maite eban seminarioa eta indar aundia emon eutsoen erakunde oneri. Jakiña dan lez, erdel-giro garbian. Ez genduan sekula berba bat euskera entzun eta ikasteko erarik izan be ez.

Karmelo Ballester'en ondoren, eta seminarioak indar aundia eukalako, Franco'ren indarrez, Eleizbarrutia iru zati egin eban: Gazteiz eta Bilbao Eleizbarruti biurtu ziran eta iruretarako erbesteko Gotzaiñak, erdeldunak, bialdu ebezan: Font Andreu katalana Donostira, Morcillo Madrildarra Bilbao'ra eta Bueno Monreal Gazteiz'era. Erdel-giroa sartzeko bide ziran iru oneik eta ondo be ondo bete eban euren zeregiña. Aldi orretan Eleizeak euskal-sena zapaldu egin eban.

Morcillo jaunaren ondoren Gurgide jauna etorri zan Bilbao'ra. Au be Franco'ren bimenaz. Au euskerearen zapaltzaille bildurgarria izan zan eta abadeak ez genduan izan beste biderik bere aurka argi ta garbi jokatzea baiño. Erroma'n, Ñuntzioaren etxean (Donostian eta Madrid'en) eta Bilbao'n egitekoak egin genduzan olako gotzaiña gure euskalerritik kendu egien. Bera il zan egunetan Erroma'n nengoan eskari ori Aita Santuari egiten, abade-talde baten izenean. Gotzain orren eriotzeak erreztu eban arazoa Erroman. Baiña egun areitan abade euskal-zaleak egin genduan ekintza ez da aitzutekoa, euskerea eta Euskalerrria gogoan geunkazala eta eleizearen ikuspegitik.

Gurgide Jaunaren aurreko Gotzain guztiak erdeldunak edo erdelzaleak izan ziran, Mateo Mujika izan ezik, eta au Erbesteratuta, Gotzaintza itzi-azota il zan.

Ñegargarria da Eleizea agintarien menpean ikustea!

Guk emon genduan erantzun gogorra emon ondoren, Bilbao'ra Jose Maria Zirarda euskalduna etorri zan arduradun lez. Bakio'n jaioa eta euskalduna naizta euskerea ondo menperatu ez. Gauza asko egin ebazan euskerearen alde eta arrezkero Gotzain guztiak euskalerrian jaiok edo euskaldunak izan dira.

Ez dogu isillean itzi bearko Añoberos Bilbao'ko Gotzain naparra, Gurgide Gotzaiñaren adiskidea baiña beste era batekoa.

Añoberos'ek ez ekian euskerarik eta neu joan nintzan Cadiz'era, abade talde baten izenean, ez etorteko esaten. Ona emen alkar-izketa, gitxigorabera:

- Bilbao'ra Gotzain ez etorteko esaten gatoz, zuk euskerarik ez dakizulako.
- Errazoia daukazue. Bilbao'ko Gotzaiñak euskerea jakin bear dau, baiña niri Aita Santuak esan daust joateko eta joan egin bear dot.
- Orduan len lez jarraituko dogu neke-artean.
- Ñik alegin guztia egingo dot zuen nekeak arintzeko.

Eta etorri zan. Andik ille gitxira, Zeanuri'ra etorri nai ebal esan eustan eta nik ez neban eragozpenik ipiñi, Gotzaiñak bere eskubidea daukalako erritarrak ikustera etorteko. Eta Zeanuri'n mezak euskera esan ebazan eta berbaldiak euskera ta erdera.

Añoberos jaunak iragarri eban, Bizkai'ko parroki gustietan irakurteko berospetsua eta ondorenak berak jazan bear izan ebazan. Ikastolai be la-guntza aundia emon eutsen..

GAURKO EGOEREA

Beti eta guztiak gure gotzaiñak erbestetik etorriak izaten ziran aldiak joan dirala esan lei. Gaur Egun, Gazteiz'koa Euskalerrian jaoia da eta euskeraz jakin ez arren, arazoa ondo ulertzen dauana. Iruñakoa jaiotzaz Bakio'koa da eta ba'daki apur bat euskeraz berba egiten, ez larregi. Donosti'koa euskalduna da jaiotzaz eta izkuntzaz eta Bilbao'koa, bateatu ebenean Koldobika Mirena izena ezarri elutsoena eta euskeraz naikoa ondo egiten dauana. Ikusten dan lez, guztiak euskalerrian jaoiak eta Gazteiz'koa izan ezik euskeraz berba egiten dakienak. Gure burrukak euren indarra izan eben eta pozik gagoz lortu dana lortu dalako. Daukaguna baiño gitxiago ezin onartu geinke.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Donostia'koa izan ezik, beste iru gotzaiñak laster zar-saridun biurtuko dira irurogei ta amar urteak bete dabezelako. Orduan, gitxienez urtebete barru iru gotzain barri izango dira Euskalerrian. Zelakoak? Ez dakigu ezer.

Iruña'rako ta Bilbao'rako, diño, lendik gotzain diranak izan bear dabela eta gaur Gotzain diranen artean ez dogu ikusten iñor euskera dakianik. Bi bai badagoz euskaldunak, Anbrosio Etxebarria Barbastro'koa, baiña au laster zar-saridun izateko dago, eta Zamora'n dagoan Juan Maria Uriarte, Bilbao'n Laguntzaile izana, baiña au Bilbao'tik atera-barria da eta ez litzake itzaroteko gauzea ain laster barru Bilbao'ra ekartea.

Misiñoietan bai ainbat gotzain dagoz euskaldunak, baiña ez litzake gauza erreza areitariko bat etortea. Fruniz'ko erritxuak, Bizkaia'n, iru Gotzain daukaz, bat esandako Uriarte, beste bat Orbe Peru'ko misiñoietan eta irugarrena oraintsu Gotzain egiña, Puerto Rico'ko Arezibo'n, Iñaki Mallona Pasiotarra. Eta ba-dakigu New York'en dagoan Garmendia Gotzain ezaguna be euskalduna dana, eta beste asko.

Oraintsu artua dan bidea, errialde bakoitzean bertako Gotzaiñak ipinteko bidea, gaur dirudiane larr-unean dago, ez dago itxaropenik Euskalerrira Gotzain euskaldunak etorteko, baiña kontuz ibilli beitez eleizearen arduradunak. Erriak, batez be erri txikiak, erantzun gogorra emoten dakie, Gurgipide'ren egunetan emon zan lez. Ez dogu onartuko Euskalerrian euskalduna ez dan Gotzaiñik.

Euskalerrian dan Eleizan Gotzaiña izateko, eleiz-gizona, zentzunduna, Jainko-zalea izan bear da, baiña baita euskalduna ta euskalzalea be. Urte batzutan lortu doguna, egun batzutan galdu geinke baiña ez dogu itziko. ARRISKUA BA-DAGO.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK.



SANTIAGO BIDEKO EUSKAL KANTAK

(Aurten, Jakobear urtea dala-ta, bide, oitura, kantu eta idatzietan Euskalerrian zear ospakizun orrek euki zuan eragiñaren oroitzaz, gure lendakari eta langille asper-gabeko izan zan Lino Akesolo gogoratu eta berak idatzitako lan au agertu nai dogu, berari zor diogun esker eta omenez).

Joan dan urtea (1989koa) berarizko urte andia izan da Konpostelako uria-
rentzat. Antxiñetako urteetan lez, munduko bazter guztietatik elduta, Joan
Paulo buru ebala sekulako gazteria, 500.000 gazte inguru batu ei ziran an Aita
Santuak an egin zituen egunetan.

Antziña baten Santiagora bideak betean joan oi ziran erromesen oiñen eta
kantuen otsa barrero entzun zan orduan. Oraingo Euskalerriko gazte askok be
egin eben bide ori eta euren artean euskal-kantarik entzun zala badakigu. Ga-
nera, Montxo; edo Pozmendi izeneko lekuan Aita Santuak ospatu eban Meza-
ko otoitzetan, euskereak be izan eban bere lekutxoa erri-otoitzean beste iz-
kuntza askoren artean.

Egoki zan euskaldunak euren burua euskaldun agertzea Santiago inguru
eta arako bideetan. Santiago-bideak, arlo luze baten, gure errian zear urratuta
dagoz. Emendik zear joian biderik ospetsuena, frantsez-bidea eritxona, eta bi-
de nausi orrez ganera beste Konpostelarako bide askok zearkatzen eben Eus-
kalerrria.

Bide nausi orrek, Naparroan sartu eta Orregatik, Iruñetik, Garestik, Logro-
ñotik Burgos aldera eriazan erromesak. Jaka aldetik eta Dantxarinetatik eto-
zan beste batzuk eta oneik be Ñaparroan sartu eta Gares-era jotzen eben,
emen bide nausitik etozanakaz bat egin eta aurrera alkarregaz jarraitzeko.

Irundik sartzen ziran beste asko eta batzuk Gipuzkoan zear San Adriandik
Arabako bidea artuta, Burgosen alkartzen ziran eta beste bide nausiko erro-
mesekin; baiña beste batzuk Bizkai aldera egin eta Urkiolatik aurrera besteen
bidera jotzen eben.

Baziran Inghlaterra aldetik eta itxasoz etozenak be. Eurotariko askok. Bizkai-
ko portuetan ontziak itxi eta Bizkaiti zear joiazan, Orduñatik, edo Mena-ibarretik
gora igonik, Santiagorako bide nausian sartzeko. Burgos edo Palentzia iné
gurutetan. Benetan Santiago bideen sare artean egoan gure erria.

Amargarren mende inguruan asita, ia milla urterik ona, gizaldiz gizaldi, Eus-
kalerriak Santiagotarrak etxeko egiñik ezagutu zituen, eta Santiago bidekoen

oin-otsik eta kantarik entzun izan zan emen. Olako erromesen euskal-kanturik entzun ete zan iñoz? Itaun oni erantzun gura leuskio nire artikulu onek.

SANTIAGO-BIDEA EUSKAL-LITERATURAN

Lenengo ta bein, esan daigun Santiago-bideen aitamenik badala euskal-literaturatxoan. Ez da gauza utsa Etxahun Topet entsutetsuaren bertsoetakoa. Zoritxarrak bein eta barriro jotako gizon orri leku askotan ibilli bearra jazo jakon bere bizian. Ez Santiago bakarrik, Erroma ta Loreto be, erromez joanda, ikusiak zituen.

Etxehunen bertsoetan bi edo iru bider badator Galiziako Santiagoren, bere bertsoetako Saint Jaka edo Jundane Jakaren izena. Berak bein autortu ebanez, zoritxar gogorrenetakoa eldu jakon berari, edo presondegin il, edo amui-nan (eskean) bizi bearrekoa. Blzi bearrak eroanda España aldeetan urte bi egin zituen. Bere anaiarentzat diarduala, onela diño bere bertso baten:

Bi urte ditut Españan pelegri gisa,
hireganik deuseren ezin ukhenez biziaren billa.

Bereak ei zituen ondasunak ukatu edo emon ez egiten eutsazalako, artu bear izan dau bide ori, zelan edo alan bizi bear eta. Eta Etxahunen erromes edo eskeko ibilte ori ez da eskale arloteen antzean bizitzea. Entzun daiogun beste bertso baten erruki gitxi erakutsi eutsoen bere erriko abadeentzat esaten:

Izan nuzu Loretan, Jakan eta Erroman;
Praube hura izan da zazpi erresumetzan;
egun oroz meza entzun bi milla elizetan; .
Barkoxen bezala apezek ez tratatu izan.

Etxehun onen testigantza, lekukotasuna. Santiago erromez ibili zalakoa euskaldun baten testigantza argia dogu.

Etxahun zuberotarra da, eta zuberotarren artean ainbeste landua izan dan antzerti edo pastoral baten daukagu beste testigantza bat; ain zuzen, Santiago edo Jaundone Jakoberen izeneko pastoral baten, oindiño argitaratu barlk daukagun arren. Pastoral orretan Apostoluaren ara-ona guztiak aurkeztu ondoren, berak egiñiko mirarien artean, Errioxako Santo Domingon Santiagora joian erromes baten alde egiñiko mirari daukagu: erromes ori, zidarrezko ontzi bat ostu ebala-ta neska batek guzurrez salatu eta urkatu ebenekoa.

Ona zalengo maltzurkerira jo eban neska orrek Santo Domingon bere gura-soakaz joian erromesa lapurtzat salatzeko:

Zilhar gandola behar deret
sakolan ixilik ezarri,
baj eta uhuñetako
gero atzaman arazi.

Antxiñako Josek Ejiton bere anaiari maitasunez eta gogo onez egiña asmau eban neska orrek, baiña gorrotoz eta asmo txarrez. Onela joan jakon ostatuko jabeari, erromesaren aurka salakuntza egiten:

Ai, Aita, zilhar gandola
estuzu heben ageri;
pelegri fripu haiek
ahal dukezie ebatsi.

Erromes gixajo errubakoa urkamendian eskegi eben. Baiña aren gurasoak, biotzeko miñaren miñari eutsita, Santiagorako osterea eginda etxerakoan Santo Domingora eldura diranean, ara non aurkitzen daben urkamendian euren seme iltzekoa, oindiño bizirik. Santiagoren miraria! Mirari ori eta epailleak salatzaille guzurtiari gero emoniko eriotz zigorra jaso eta gogoratu ditu euskerazko pastoral onek.

Gure euskal-literaturako beste testigantza bat joan dan gizaldiko Joannategi euskal-idazle ugariena da. Abade izan eta azkenez fraide beneditar egiñik. Lazkaon biziko zanak, 1876an, argitaratu eban "Zenbeit sainduenbizitzea", liburuan Santiagoko egunean onela diño:

"Ara (Santiagora) ziran joiaten multzoka, osteka, gure arbasoak eta gure aitak beren buruen, gorputz eta arima, Jondoni Jakoberen arartekotasun botheretsuaren gerizan ezartzen".

Iparraldeko euskaldunen Santiagorako joera beroa Haristoy eta Daranantz, gure antzinalaeren aztertzaillak biak, naikoa argi jarri eta autortu dabe, eta oneik gure arira egokiago datorrena geitu deuskue: bai gaskoinak eta bai euskaldunak, bakotxak bere izkuntzan, Santiago biderako kantak be ba eukezala. Baiña ez ei jaku bat be eldu gure egunotara arte. Baiña egunen baten aurkitu leitekezalako ustea ez eben galdu.

SANTIAGO-KO EUSKAL-KANTA BATZUK

Zorionez, Daranatzek eta izan eben ustea ez zan izan ustela. Daranatzek bere Curiosités du Pays Basquen Santiagoko bideko frantsez kanta batzuk, 18garren mendean argitaratuak jaso eta emon euskuzan; euskerazkorik aurkitzea ez eban lortu. Baiña geroago euskerazko batzuk be agertu izan dira. Aingeru Irigarai izan gendun olako batzuen kopiaren jabe. Eta Haritschelhar jaunak kantu orrean iturria aurkitzeko zoriona izan eban eta Baionako Musée Basque-ren aldizkarian euren kopia argitaratu euskun, orain dala amabost bat urte. An ikusi gendun, orraitio, kanturik luzeena, benetako erromes-kanta ez zala guztiz ez-ezaguna, Azkue zanak bere euskal-kantutegian emon euskula zati bat, bere doiñu ta guzti.

Haritschelhar Jaunak ezaguerazo euskun kanturik luzeena eta zaarrena benetako erromes-kanta dogula esan dot, Santiagora bidean joian batena, argi-go esateko. Frantzes-kantak, geienak beintzat, beste antz bat dauke. Ez dira Santiagora bidean kantetako egiñak, bide orretan erromesak ikusi eben guztiaren barri emotekoak baiño. Euskerazko len aitatu dogun ori ez; erromes bide artu eta bidean doala, beste lagun batzuekin batera, gero kristau ohea izateko gogo beroaz otoitzean doan kristiñau batena dogu, benetako erromes-kanta. Ona emen zati batzuk:

Jinko Jauna, banuatzu
pelegrinajin;
zuk, othoi, lagunt nezazu
ene bidajin.
Debozione hartu nizun
aspaldi handian;

orai konplitu nahi dizut
zure graziareki batian...
Zure laidatzen nahi nuzu
bizi mundian,
bai eta ere zerbitzuko
egin ahalian.

Ñi hil nizanian
plazer naizun zuk ezarri
zure gloria saintian...
Jende hunak, baguatzu
pelegrinajin,

Jinkuak hala plazer badu
debozionin.
Orthit ukhan gitzazue
nork zien aldin,
orok, othoi, Jinko Huna,
justoki hel gitin.

Badirudi bldeko errietan aurkitzen dituen kristiñauai euren alde otoitz eske dagozela. Baiña otoitzen laguntzaz ganera biderako ogiaren bearrean aurkituko dira. Askotan ain blde luzean Jainkoaren izeneko eskaleena egln bearko dabe. Eskale bertsoen urrengo, ona zelan eskartzen daben emoillen esku zabala:

Esker dereziet hanitx
zien huntarzunaz,
bei eta ene duzlen
berondate hunaz.
Jinkuak zutie phakatturen
bere grazia saintiaz.
Bai eta nik presentian
Pater, Ave Maria, gloriatz...

Esparantzarekila, Jaun,
banuazu aitzina;
justoki helturen nuzu
Saint Jakesera.
Orai zure ohoretan
banuazu erraiten
Pater eta Ave Maria,
juntaturik gloria.

Beren beregi azkenerako itxi dot ahapald bat, 13garrena, Azkuek bere kantutegian jaso eta emon euskuna:

Pharkamentu galtho nago
Jinkuari,
eta gero, jende hunak,
zier orori.
Ofensatu bazutiet
dolu dut segurki:
Jinkua othoi dezagun
pharkatzez bat bederari.

Azkuek bere kantutegian dakarrena onela da:

Barkamendu galdez nago Jinkoari,
eta gero jende onak, zier orori;
egin baduziet hobenik.
dolu dut segurki.
Jinkoak barka dezagula bat bederari.

Agirian dago kanta beraren bi aldaki doguzala errien. Azkuek bere kantutegian kanta bakotxa nori eta non artu eutsan argibide osoak emoten ditula beti. Emen ez deusku esan besterik, Lakharrin (Zuberoan) jaso ebala. Besterik, badakigu ez zituela kantu bakotxaren bertso guztiak argitaratu; beste asko bere artxiboko karpitetan gorde zituela. Artxibo orren jabe diranak argituko al deuskue gai au.

Azkuek beste kanta bat be badau, Santiago bideko erromesak (pelegrinñak), gogoratzen dituen. Ez da erromesak eurak kantetako ez kantaurikoa. Alan nai olan, Santiago bidekoa da, gure errien baten, Santiagoko erromesak etozala-ta, are; bidera urten, arrera egin eta agorako zerbait emoteko deia egitekoea edo, Azkoitin entzun eta jasoa da:

Anton, jo zak tronpeta,
Txomin, nun dek konketa?
Edaririk ezpaldin bada,
ekarrrik beteta, Ja, Ja!!
Peregrinuak datoz Santiagotikan, Ja-ja!!
Iriki zak atea,
ikusteagat!kan, Ja-ja!!

Kantu au, Barojak be badakar bere Vazconia liburu andian, eta andik artuta, Teodoro Martínez jesuitak be ba!, bere El Camino Jacobeo liburuan. Aita onek dakarren Santiago bideko euskerazko kantu bakarra da.

Haritschelhar Jaunak bere artikuluan a!taturiko kanten artean bada bat frantsezen antzera egiña, Santiago bidean ikusitakoen barri emoteko. Frantzesetik euskerara baldar samar itzulia dirudi. Ahapaldi bi baiño eztira. Erromesak Santo Domingoko mirad eta oillarrarena goratzen ditu, eta Burgosko Agustindarren eleizako Kristo kurutzekoa ikusten joaten ziranekoa:

Saint Domingora, nintzarian,
elas! Jinko Jauna,
elizan barna sartu nintzan
othoitze egitera;
han ikusi nin mirakuillu
pelegrier heltia,
oillara entzun kantatzen,
harekin o!llo xuria.
Hantik sarri heldu nintzan Burbusera,
eta berhala jun nintzan
Agustitara,
eliza hartan barne baitzen
kruzifika saintia;
ikusi nian izertzen:
hori gauza segura.

Beste h!rugarren kanta, Haritschelhar berak kopiatu eta emona, Konpostelara pelegri joan eta gero kaputxino sartu zan jauntxo batek egintzat dago, baiña au be frantzes bertso batzuen euskerazko itzulpena baño ez da, baina frantzes testoaren erdia baño ez dau euskerara itzuli.

Orra, bada, Santiago bideko lau bat kanta. Daranatzten egunetatik zerbait aurreratu dogu gai onetan. Azkue euskal-kanten batzailleari esker, Santiago bideko kantu baten doñua be badaukagu gaur, bera Santiago bideko kanta zanik konturatu ez bazan ere.

Santiago bidea atzerritarren bidétzat dago, ez euskaldunen bidetzat. Euskalerritik zear joian arren bideko arlo andi bat, Erromesak, Europa guztitik etorrita, emendik zear joaten ziran Konpostelaraño jarraitzeko. Eta euron artean, eurokaz naste, Iparraldeko euskaldun asko joaten zirana, Joanategi euskal-idazleak idatzi eban lez, multzoka, osteka joan be. Eta euren euskal kantakaz ganera. Zuberotarrak, beintzat, euren aztarnatxoa itxi deuskue; alan zala ikusteko zeozer da. Ez da gauza utsa.

ARRAIN ETA ITXASKI BATZUEN IZENAK

ADIERAZGARRI BATZUK

Jakiña da arrain izen edo deituretan ez bardintasan ugari billatzen dala, bai erri izenetan bai eta zientzi sailkapenetan.

Zientzi izenetan or doguz Abilguard, Bloch, Bonnaterre, Cloquet, Cuvier, Faber, Gunther, Geoffroy, Lacepede, Linne, Risso, Schu, Valenciennes, beste batzuen artean, euren sailkapenetan.

Onetan bat aukeratu izan dogu, beste barik, erreferentzi bat eukitearren.

Erri batetik bestera, gure lekukoak bertakoari eutsi naia be igarten da deitura batzutan.

Baiña lan onek asiera baten beste elbururik ez dau, gero onetan jakintsua-goak egin leikezan eta egin bearko dabezan lan bete eta osoagoen lagungarri izatea baiño.

Arain batzuen izenak, erri batetik bestera daukezan berezitasunetan batzutan nabaria da edo ez bardiña. Beste batzutan erri bakoitzeko izkuntz-aozkatzete gora berak baiño ez dira.

Azkenengoetan, esateko marraixu edo marraixu, nai kraba, kabra edo kabri, argi ikusten da erritasun edo lekukotasun ori. Ez dago zetan lan onetan bereiztu, argi ikusten dalako edo erraz igarri bereiztasun ori.

Beste batzutan izen ez bardiña da. Ala Betandi toki batzutan, kuerba edo uerba bestetan, makarela bestetan, arrain berberan deitura lez gertatzen danetan, komenigarri ikusi dogu izen bakoitza lekutzea,

Deitura lekutzeko erabili dodazan laburpenak oneik dira:

(Gip).- Gipuzkoa.

(Lab).- Laburdi.

(Bay).- Baiona.

(Don).- Donosti.

(Get).- Getaria.

(Hond).- Hondarribi.

(Mut).- Mutriku.

(Orio)

(Oiy).- Oyarzun.

(Zum).- Zumaia.

(Ber).- Bermeo.

(Lek).- Lekeitio.

(Mun).- Mundaka.

(Ond).- Ondarroa.

(Ub).- Ubidea.

(Arak).- Arakil.

(Gar).- Garazi.

Bestelako oarrrik danetan, au da, zenbakiren bategaz azpimarratuan, lanaren azkenean agertuko da.

Zerrenda onetako izendegia osotzeko aztertu eta erabili dodazan liburuak oneik izan dira:

- Aranzadi, Telesforo.- RIEV, XXIV, 375-386.
 Azkue, R.M. Diccionario Vasco Español Francés.
 Basterretxea frusta, Andoni.- Bere apunteak.
 Bermeo, Udalerri eta Itsasoko gaiet buruzko aldizkaria.
 Lizaso, Felipe.- Bere kartak.
 Lozano, Felipe.- Nomenclatura Ictiológica. Madrid-Valencia 1.963
 Laffite, Vicente. "Fauna Marina de la Costa Vasca. (Sociedad de Oceanografía de Guipuzcoa)
 Labayru, Estanislao.- Historia de Bizcaya. Tomo I-515-523.
 Lekeitio, Ederti Etnografía, aldizkaria. 2 zenbakia.

EUSKERAZ	GAZTELANIAZ	ZIENTZI IZENEZ
ABADIRA (Lab.)		
Abario		
Abalaio (Lek)		
Abaku (Gip)		
Abarixu (Ond)	Abadejo	Pollachius pollachius.
ABIXOI		
Abisoi (Don)		
Kantxua (Lab)	Pez Plata	Atherina presbyter.
ABREÑA		
Abrina (Mut).	Ikus KOLAIOA.	
ABROTA (1)		Spanis pagus.
ABUS (Ber)	Aguacio	
AGIN ZORROTZ (Ond)	Ikus ATUÑ TXIKI.	
AIBARTE (Azkue'k Jibarta).	Ikus JIBARTA.	
AIHENA (Lab)		
Durdoi.		
Mutxurdin.		
Tenka.		
Peskit.	Maragota, gogiön.	Labrus Berggyta.
AIÑGERU.		
Dardara (Lab)		
Eskuikari. (Ber, Ond)		
Ikarayua.	Tremielga, Temblön. Torpedo marmorata.	
AINGERU GUARDAKUA.		
Matrana (Lab)		
Zabalera (Lab).	Pez angel.	Squatina squatina.
AINGIRA.		
Aingira merrebaldia (Ber. Lek.)		
(Bizardun aingira)		
Aingura morena (Lab)		
Itxas sugea.	Morena, murena.	Murena helena.
AIÑGIRA (koskondua)		
Kongrioa.		
Itxas aingira.		

Lebatz aingira.		
Orratza (Lab)	Congrio, zafio.	Conger conger.
AIÑGIRATXA	Azkue'angula ete dan zalantza agertzen dau.	
AITZE KABRA.		
Itxas kabra.		
Kabrarroka (Don)		
Sakillo.		
Kabra (Bay)	Gallineta, polla.	Scorpaena scrofa.
AKER MUJOIA	Chicha, sargo picudo.	Sparus puntazzo.
AKULA	Aguja.	Belone belone.
AKULA BIRIARDA (Ond)	Ikus TXITXI EZPATA.	
Azkue'k, Akula baiño go zoago.		
ALATXA		
Kodaka		
Zabalu (Ond)	Alosa. Sabalo.	Alosa alosa.
ALBOKARTA.-	Ikus ANTXOA.	
ALBORÑA.-		
Alburno (Lek).	Pez de río. Loina.	
ALIBA	Ikus (KARA. Raya.	
ALIGOT		
Lentoi (Ond)	Aligote	Pagellus carne.
ALIKOTA		
Besigua.		
Arrosela (Lab)		
Bitxiya (Lab)	Besugo de Laredo.	
	Pagel. Pancho.	Pagellus centrodonatus.
ALOT. (Lab)	Ikus EGALUZE.	
ALUA		
(kara		
Arraixi (Ond)	Raya	Raja picta.
ALLUET (Ber)	Besigu antzeko, buru txikiagoko	
AMARRATS		
Olagarru (Ond)	Pulpo	Octopus vulgaris.
AMORRAIA.		
Amuarraña		
Amorraña (Lab)	Trucha	Salmo trutta trutta.
AMUARRAIA		
Arrankari	Trucha	Salmo trutta fario.
ANGULA	Angula	Muraena anguilla.
AÑPROI (Ber)	Ikusi Lanparda	
AÑTESA		
Merua		
Berrugeta	Corvina	Johnius Regius.

AÑTXOA

Albokartia

Bokarta

Txitxiñe (Ber)

Anchoa

Anchoilla

Engraulis Encrasicolus.

AOLATZA

Pospolua

Kosta lasuna (Ond)

Letxera

Muble

Motella vulgaris.

AOTADABETA

Lasuna

Muble

Mugil auratus.

APES (Azkue) Osagarrietako erabilten da bere gantza.

ARIGORRI

Putxano

Arete rubio

Trigla cucculus.

ARMI-ARMARRAI

Xabiroia

Salbeue (Ond)

Araña escorpiona

Trachinus draco.

ARMOMA (Azkue) Eskama bako arraiña, eskabide gitxikoa.

ARRABASA (Azkue) (Lab-Ainhoa) (Ego gorri eta buru zimurreko ibaiko arraiña)

ARRAIÑGORRI.

Kurru-kurrua

Ñeskazarra (Don.Ond) Perlon

Trigla cuculus.

ARRAINGORRI (Lab)

Murloina

Urta

Putxano

Rubio. Morrocorte

Trigla lastoviza.

ARRAIÑ-BALTZA

Perloi baltza (Ond)

Borracho. Perlon negro Trigla gurnardus.

ARRAIÑ BATZAYA

Luia.

Palabaltza.

Doncella. Julia

ARRAIÑ BIZARDUÑ.

Barbariña. Izoki semea.

ARRAINKILLA (Azkue) Arrain txiki bat.

ARRAIÑ ATS. (Azkue) Lebatz antzeko, txikia ta ez ain atsegiña.

ARRAIN GAIZTO.- (Azkue) Marsopen familiko arrain andia.

ARRAIN GARO. (Azkue) Itxas arraiña.

ARRAIÑ GURBIL

Muxarra

Txopa

Ollaca, choa, cántara. Spongyliosoma
cantharus.

ARRAIÑ MINGAIÑA

Ezpata.

Pez sable. Aguja. Paladar

ARRAIÑ SUGE

Culebra de mar.

ARRAIN TXIKI (Azkue)

Itxas arraiña. Cuco.

ARRAIÑ TXINGOLA

Cinta

ARRAIÑ TXIROLA

Putxano

Chiflete.

ARRAIN ZABALA		
Arraia		
Gastaka (Zum.Get.Orio) Raya		Raja clavata.
ARRAI ZURI (Lab)		
Murloina (Lab)		
Perloina (Lab)		
Perloi gorri.	Golondrina.	Trigla hirudo.
ARROSELA (Lab)		
(Lezo, Irun,Oiy. Hond)	Besugo de Laredo	Pagellus centrodontus.
ARRAMUY	Itxas trutxa.	Trucha de mar
ASTUÑA (Lek)		
Gatta (Lab)	Saboga, lacha, alosa.	Alosa falax.
ATALUA (Don) (Ber)		
Itargi arraña		
Peixa.	Pez luna.	Mola Mola.
ATUÑ BERRI.		
Atun gorri, zimarro	Atun. Cimarron.	Tunnus Tynnus.
ATUÑ GORRI.		
Egalibur,		
Atun berri, zimarro		
Atuntxia, Bonita (Lab)	Cimarrón.	Tunnus Tynnus.
ATUÑ TXIKI.		
Atun zuri		
Agin zorrotz (Ond)	Bonito	Sarda Sarda.
ATXARRAIÑ.	Pez de' Rocas	
AUMAL (Hond)		
Marmoka (Ond)	Medusa.	
AUÑTZ ARRAIÑA	Cabra	Paracentropistis cabrilla.
AYENA (Arra) (Lab)		
Txilibitu (Don)	Gallano. Marogota. Labrus bimaculatus.	
BABUSA		
Gorroti (Lek)		
Babusa	Babosa, moma	Blenius gattoguriña.
BAKALLAUA		
Makallau		
Tankartia (Lab)		
Kakalana (Lab)	Bacalao	Gadus morhua.
BALE		
Baloi (Lek)	Ballena	Balaena. Balaena.
BARBARIÑ	Salmonete	Mullus barbatus.
BARBUA	Barbo	Barbus eques
BASTAÑGA		
Paztanga (Ond).	Pastenaca. Chucho Trigus vulgaris.	
Arrain izun zorrotz, buztanean zerra antzekoa daukana.		

BEGIAUNDI (Don)		
Betandi (Ond)		
Betaudtxe (Lab)	Estornino, caballa.	Scomber japonicus.
BERDELA		
Mukuela		
Makaela (Lab)	Caballa, verdel	Scomber scombrus.
BERLANKA	Perlita, lirio.	Gadus poutassou
BERRUGETA		
Lantesa	Corvina	Sciaena aquila
Burbiñe (Ond)		Sciaena cirrosa.
BESIGUA		
Bixigua		
Alikota (Lab)		
Arrosela (Lab)		
Bitxiya (Lab)	Besugo	Pagellus cetrodontus.
BILLAU (Lek) (Ber)	Sollo	Acipenser sturio.
BITSARRAIÑ	Ikusi KORKOI.	
BITXIYA (Lab)	Ikus BESIGUA	
BIZKARBELTZ		
Korkoi		
Korrokon		
Korkon		
Dabeta		
Buru zabala (Lab)		
Korrokina (Lab)		
Santerai (Lab)	Cabezudo, mujil, mujol Mugil	Cephalus.
BOLLARRAIÑ. Itargi arraiña	Pez luna	
BOA	Boga	Boops Boops.
(Boba) Lab.		
BOKARTA	Ikus AÑTXOA	
BORLIÑA (Azkue)	Curbina. Arrain gozoa, begi txiki ta eskama gorri.	
BORONDIÑA (Gip)		
Ñeskazarra (Ond)	Garneo, rubio, escacho. Trigla Lyra	
BOTA (Ber., Lek)	Arrain gorri, amar erruduna	
BOTAIOTZ (Ber)	Pota andia	
BOTAKORRA		
Botakorra (Don.Zum)		
Lantzo (Ond)		
Oratea (Lab)	Aguja, salton.	Belone Belone
BRIANDA (Ber) Ñoruegan "Lij"		
BUMILTXURI		
Kabuxa,		
Murela,		
Talamazoka.	Gobio	Gobius cruentatus.
BRAMUÑA	Rorcual	Blaenoptera Phisalus

BREKA		
Momarra	Breca	Scyllium stelare
BURBIÑE (Ond)		
Burriota		
Gurbi		
Kakajali (Ond)		
Burriketa (Lab)		
Burrasota (Lab)	Verrugato, curbina.	Umbrina cirrosa.
BURLIÑA. (Hond)	Azkue: Arrain gorri bat.	
BURUTU (Ber, Mun) Lixa	antzeko, gibel aundia.	
BURRIYUA		
Ñeskazárra (Ond)	Escacho. Pelut.	Trigla Lyra.
BURTAI.		
Gaotza,		
galatza		
pikua.	Lija	Centrophorus squamosus
BURUSKO	Barbo	Barbus eques.
BURUZABALA (Lab)	Ikusi BIZKARBELTZ.	
BURUZABAL. (Lab)	Cabezudo, corcon.	Mugil Chelo.
BUZTAÑBELTZA.		
Koblaka (Lab)		
Kollaka	Dorada, oblada.	Oblada melanura.
DABETA	Muble.	Mugel sphalus.
Lasune. (Ond)		
DARDARA (Lab)		
Eskuikari (Ber)		
Ikarayua (Lab)		
Aingeru (Ond)	Tremeilga, temblón.	Torpedo marmorata.
DOÑTZELLA		
Palabaltza		
Buztanbaltza.	Doncella. Oblada.	Oblada melanura.
DRAGOI TXIKI		
Salbeue (Ond)	Sabirón.	Trachinus vulgaris.
DURBOI		
Durdua		
Zapateru (Ond)	Maragota	Labrus bergyylla.
EGA ARRAIN.	Pez volador, juriola	Cypselurus heteresus.
Txori arrain.		
EGA LABUR	Atun, cimarrón, jardon.	Thunnus thinnus
EGALETSU.	Rubio, volador.	Trigla lyra
EGA LUZE		
Alot (Lab)	Ikusi ATUÑ ZURI.	
EGOI (Ond)		
Martina		
Mutxu Martin (Don)	Pez San Pedro.	Zeus Faber.

ERASTUÑ ARRAIÑ.- ERLA Muxarra Erraxau (Ond)	Anillo, arete Mojarra	Trygla cuculus Pagellus mormyrus
ERÑABERA Erla (Don)	Pez herrero, perla	Lithognatus mormyrus
ERREBOLLUA Turbota	Rodaballo	Rhombus máximus
ERREGE	Pez rey	Atherina hepsetus
ERREGIÑA	Gallano, maragota (Hembra)	Labus immaculatus
ERROBALO	Róballo. Lubina	Labrus lupus
ERROBURU Urraburu (Ond)	Dorada	Sparus aurata
ERROMERO	Rémora	Remora Remora
ESKALLU	Bermejuela	Phoxnix loevis
ESKUIKARI (Ber)	Tremlelga, Tembladera	Torpedo marmorata
ESKATXUA Eskatxio (Lek)	Escacho, garneo	Trigla lyra
ESÑEDUÑA	Lechera, merlana, sarreta	Merlangius merlangus
ESPARROI	Pez espada	Xiplias gladius
ESPATA ARRAIÑA	Lorcha	Ophidium barbatum
ESPERLOI	Espadarte	Orcinus orca
FLETAÑA (Lab) 011arra	Gallo, platusa	Limanda limanda
GA-ATZ ANDIEÑA	Lija mayor	Centroforus squamosus
GAATZ GALATZA	Cailon, marrajo	Lamna nasus
GALATZ	Lija	Centroforus squamosus
GARDA (Ber, Mun)	Marrojo?	
GARDIA (Lab) Kardia	Ganabota, boquidulce	Hexanhhus griseus
GASTAKA	Raya clavada	Raja clavata
GASTEKE	Raya santiaguera	Raia clavata
GATTA (Lab) Astuna	Saboga, lacha	Alosa falax
GOAITO	Gobio	Gobius niger
GOBIO	Katuxa, murela	
GOMEZ ARRAIA (Zum)	Cabracho, Escorpena	Scorpaena porcus
GURBI	Corvina, verrugato	Sciaena cirrosa
GELBA (Hond)	Gata	Scylliorhinus stellaria

(Azkue'k: Arrain andia, gibel andiduna).

Azkue'k: Arrain txikia, baiña iru buztanduna.

IJITU SARDIÑA (Lab)		
Sardiña igarra	Arenque	Clupe arengus
IKARA (Lab)		
Ikarayua		
Dardara		
Eskuikari		
Arrai zabala		
Gaztaka	Tremelga, tembladera	Torpedo marmorata
(KARA ZERRA (Lab)	Raya de espejos	Raja miraletus
ILISATSA	Cabracho escorpio	Scorpaena scrofa
IÑDIARRAIÑ (Ber)	Tollo?	
	Ikus KATU ARRAIÑAK	
ITARGI ARRAIÑA	Ikusi ATALUA	
ITXAS AIÑGIRA	Congrio	Conger vulgaris
ITXAS AZERI	Guadaña, rabosa	Alopias vulpinus
ITXAS BARE	Babosa	Reniceps raninus
ITXAS DANBOLIÑA	Rape. Pez tamboril	Lophius piscatorius
ITXAS KATUA	Pez de rato	Chimera monstrosa
ITXAS KARABA (Get)	Escorpena, cabracho	Scorpaena porcus
	Martillo de Mar	
ITXAS MAILLU		
ITXAS OTSUA		
Marraixu (Ond)	Tiburón, tintorera	Isurus oxyrinchus
ITSAS OILLO	Gallineta	Helicolenus dactylopterus
ITXAS ORRATZ	Ikusi BOTAKARRA	
ITXAS POTSU	Palometa blanca	Ceasiomorus glaucus
Lanpua (Ond)		
Litxa		
ITXAS SAPUA		
Sapo, sapua		
Tambolila (Lab)	Rape, sapo, pez tamboril	Lophius piscatorius
Tamboril		
ITXAS SUGEA	Ikusi AINGIRA	
ITXAS SUGOI (Ber)	Morena	
ITXAS SUSKI (Ber)	Vaca de mar	
ITXAS ZALDIA	Caballito de mar	Hippocampus gutulatus
ITZUKA		
Kolaio	Ikusi KOLAIO	
IZOKI	Salmón común	Salmo salar
IZOKI KUME (Gazte txikiak diranetan)		
IZOKI SEME (Gazte mardul diranetan)		
IZIKIÑA, IZOKIYA. (Mardulak, erroldu ondoren)		
IZURDE	Delfin_	Delphinus_ delphis

JAN̄ (Lab)	Mutxu Martin, Martina		
Egoi (Ond)		San Martin, gallo de mar	Zeus faber
JAYEÑE (Don)		Gallano.	Labrus bimaculatus
JIBARTA		(Azkue'k: Arrain andi saltariña:	
JITAKO SARDIÑA.-		Sardiña pescada a la deriva.	
JULIA		Doncella, Julia.	Goris julia
JULIAÑA			
(futxuela)		Maruca, barruenda.	Molva molva.
KABIXOI (Zum) Odol bako		arraitxua.	
KABOTXA			
Ur gozoko arraintxua.		Murela	
KAELA, KAIELA		Tintorera Prionace glauca	
KABUXA. Ikus BABUSA			
KAIAMUA		Gallano, maragota	Labrus bimaculatus
KAIAPUTA (Don)		Sarda	Trachurus trachurus.
KALLAPUTA (Ber)		Caballa, sarda	Scomber scombrus
KAISOI (Zum)		Aguacio	
KAKAJALE (Don)			
KAKALANA (Lab)			
Tankartia (kab)		Bacalao, abadejo	Gadus morhus.
KANILLA			
Tintoleta Mariaga.		Tiburón	Isurus oxyrhynchus
KAN̄TUKO AN̄GULA (Lab)			
Lantzoia (Ond)		Lanzón	Amomodytes lanceolatus
KARDIA			
Gardia (Lab)			
Seizakatz (Lek)		Ganabota, boquidulce	Hexanchus griseus
KAPELAN̄		Barbada, carajuelos	Trisopterus minutus
KARRASPIO sarrao		Triglido, serrano	Paracebtropistis cabrilla
KATEA			
Gata (Lek)			
Pikua			
Lixaa (Ond)		Lija	Centrophorus squamosus
KATU ARRAIÑA			
Mamatxa, tolla			
Gatuarraina (Lab)		Cazón	Mustelus asterius
KAUTXUA (Lab) Ikusi ABIXOI			
KAXAU		Julia	Coris Julia
KEPRA (Ber) Lebatz antzeko, zerbait txikiago eta ez aln atsegin.			

KIANKIARGIA (Bay)		
Palenka,		
Paneka		
Palanki (Ond)	Faneca, capellan.	Trisoptenis luscus.
KISKILLU	Bermejuela.	
KOBLAKA.- Ikusi BUZTAÑBALTZA		
KODAKA.- Ikusi ALATXA		
KOKARTA	Sardineta	
KOLAIOA		
Kolaxu (Ond)		
Abriña.		
Itsukie (Ber)		
Itsukiña		
Pinpiñua		
Pinpiriña (Lab)	Peregrino, colajo	Sardinella aurita.
KOLAIO-EME. Ikusi ITXAS KATUA.		
KOLAKA. Chopa dorada, oblada		
KOLOÑDRIÑE (Ond. Lek.) Ikusi PERLOI GORRI.		
KORKOI		
Korrokoi.		
Lasune (Ond)		
Buruzabal (Lab)	Cabezudo, capitán, corcon.	Mugil chelo
KORROÑKESKALLU.	Ibaiko arraitxua.	
KOSTA LASUÑA (Ond)		
Dabeta		
Korkoi	Muble	Motella vulgaris
KRABA	Mero de roca	Epinephelus gigas
KRAK	Cabrilla, cabra bajuna.	Paracentropistis cabrilla
KUERBA	Estornino, makarel	Scombrus colias
KURRU-KURRUA.	Ikusi ARRAIÑGORRIA	
LAMOTE (Don)	Pagel, breka.	Pagellus erytuinus.
LAMOTIA (Lab)		
Momarra.	Breca, gata.	Scyllorhinus stelaris.
LAÑPARDA		
(Lanpria.(Lab)	Lamprea marina	Pretomizon marinus.
LAÑPUA		
Papardo	Castañola, japuta,palometa.	Brama rayi.
LANTESA		
Antesa,		
berrugeta		
merua		
	Corvina, berrugueta	Pseudosciaena hololepidota.
LAÑTZOIA.		
LAÑTI AÑZOÑA (Lab)		
Lantxoina	salton,sula	Amodytes tobianus.

LAPROUPITXA (Lab)		
Xabiroi, Saburdin.	Araño,escorpion.	Trachinus vipera.
LARLOTZA	Cazón	Mustelus asterias.
LASUÑA		
Aotadabeta, dabeta korkoi.	Muble	Mugil auratus.
LEBA	Pescadilla pequeña	Merlucius esculentus.
LEBATZ, LEGATZ	Merluza	Merlucius merlucius
LEBATZ KUME		
Txillue (Ber) Abarioa (Lab)	Pescadilla	Merlucius merlucius
LEMASOTIÑA (Lab)		
Korkoi, dabeta	Dabeta, alisa	Mugil auratus.
LENGUAÑA		
Miarrai	Lenguado	Solea vulgaris.
LEÑTOE		
Lentoi.(Ond.Lek.)	Ikusi ALIGOT	
LETXERA (Don)		
Merlana (Lab)	Merlan.Sarreta.	Merlangius merlangius
LE <ERA EZÑEDUNA	id id	Gudus merlangius (Lozano)
LIBA	id id	Gundus merlaglus id
LIRIXUE (Berm)	Bacaladilla	Micromesistius potassou
Berlanki(Ond)		
LIXA		
Katea	Ikusi KATEA	
LIZAMA (Ber) Arrain andi lepo zirtatua		
LIZARRA	Capiton	Mugil capito
LOIÑA	Madrilla,boga	Chondostroma toxostoma
LORAIÑA (Ub)		
LOLOTA	Errekako arrain buru lodla.	
LOTREA (Arak)	Lamprea, de río	
LOTZA	Bertan, mollareta	Phycis blenoides
Mastraña		
Auen-bolue (Ber)		
LUVARRU (Don) (Lubarru)	Aitzetako arrain beltza.	
LUIS		
Dontzella		
Palabaltza.	Ikus DOÑTZELLA	

LUPIÑA		
Lupiya	Lubina, lobarro.	Morone labrax.
LUXARRA	Ollaca	
LUYA	Doncella, julia	Coris julis
LLISATRA	Cabracho, rascacio	Scorpoena scrofa
MAGUZA BELTZ.		
(Azkue'k) Deba'n.	Mujarra, cola negra.	Diplodus annularis.
MAILLUARRAIÑA.	Pez martillo	Sphyrna zygaena.
MAKAELA		
Betandi	Estornino, caballa.	Scomber japonicus.
MAKAELA (Lab)		
Berdela	Verdel	Scomber scombrus.
MAKALLAU		
Makailao,		
Makaillo. Ikus BAKALLAU		
MAKON. (Azkue'k)	Gualto, cabruza:	
(Baltza eta jateko txarra)		
MAMAR		
(Van Eys: cierta clase de pez marino.		
MARIA (Lab. Get) Itxas arrain txiki, begi andiduna. Jateko atsegiña,		
MARMOKA		
(Lek. Mun. Ond.)	Medusa	
MARRAIXO		
Itxas otso		
Mamarru (Orio)		
Tintoleta		
Muturmotz, muturluze (Lek)	Marrajo, cailon, tiburon	Lamna nasus.
MARTIÑA		
Mutxu Martiña.		
Egoi (Ond).	Gallo de mar, san Martin	Zeus faber.
MASKAR		
Lamprea	Azkue'k: ibaietako arrain txikia.	
MAZTRANA (MASTRANA)		
Lotza.	Ikus LOTZA	
MATRAÑA (Lab)		
Aingeru guardakua.	Pez angel	Squatina squatina.
MAUTS		
Musto	Cahaparrudo	Gobius niger.
MAZOPA (Lek. Don.)		
MAZOPLA (Hond) Arrain and i, baltz, gaiztoak.		
MAZTRANGA.		
Txutxu	Arraiaren antzekoa.	
MELKA (Lab)		
Mielga	Ferron, mielga	Squalus acanthias
MERIKARRAIÑ (Azkue'k)	Arrain txiki zuria, arraia baltzakin.	

MERLEÑKA	(Azkue'k) Arrain txikia. Pescadilla?	
MERO, MERUA.	Mero	Cerna
MIARRI.	Ikusi LENGUANA	
MIELGA	Ikusi MELKA	
MIKELA (Azkue'k: Ond.		
Itxas aingira.	Congrio.	conger conger.
MI LLU		
Sapa. Azkue'k: Arri arteko arraiña.		
Ez da jaten.		
MOMA	Pintarroja, Moma.	Scyliorhinus caniculus.
Monatxa.		
Momatxa (Ond)		
MOMARRA	Breca, gata	Scyliorhinus stellaris.
MORENA (Azkue'k: Itxas aingira).		
Moroe.	Morena, murena	Murena Helena.
MOSKOTA (Azkue'k: Atuna baiño andiago,		
koipetsua.	Aguaje	
MUJOI		
Musoi.		
Musoin (Duvoisin)		
Musar.		
Sarbaiste (Ond)		
Sargua (Lab)	Mujarra, sargo	Diplodus vulgaris.
MUKIKI (Azkue'k) Itxas arrain bat.		
MURLO	Mugil, Mujol.	Mugil cephalus.
MURLOIÑA (Lab)		
Urta		
Putxano	Rubio, morrocorto	Trigla lastoviza.
MURLOI (Lab)		
Perloia.		
Perloi beltza.	Borracho, cuco americano	Trigla gurnardus
MUSKETA (Azkue: Atunak lez arpoiagaz artzen dan arraiña).		
Aguaje.		
MUSTU		
Mauts.	Cahaparrudo.	Gobius niger.
MUSURDIÑ		
MUTXURDIÑ (Lab)		
Durdua.	Maragota, tordo de mar	Labrus Berglyta
MUTXARRI (Ond) Sin sangre. Pejerreyes		Atherina sp.
MUTXARRERI.		
MUXARRA (Ond)		
Mujoi, (Ber)		
Sarbaiste (Ond)		
Sargua (Lab)	Mujarra, sargo	Diplodus vulgaris.

ÑESKAZARRA	Ikus BURRIYUA	
OLAGARRO.-	Ikus AMARRATZ.	
OLLAKA	Cantero	Canthareus griseus.
OLLARRA	Gallo,Platusa,platija.	Limanda limanda.
Fletana (Lab)		
ONDARPEKO.	Escorpion,Salbadeo.	
ONDARRAZPIKO (Zum)	Traquino	
ORATEA (Lab)		
Akula (Don)		
Botakarra. (Lek)		
Lantzo (Ond)		
Orratza	Aguja,salton.	Belone Belone.
ORDIKARAMELO. (Ub)	Bacalao.	
ORTZ-TXIRRIKIA. (Lozano)		Scymnorhinus licha.
OSABA. (Azkue: Itxas arrain txikia.		
OTAZOTZ. (Lek) Sei metro luzerako arraiña. Zeron.		
OTSO (Ber)	Arrain txiki bat.	Prionace glauca.
PALABALTZA	Ikusi DOÑTZELLA	
PALANĀKA		
Paneka	Capellan, faneca	Gadus Luscus
PALUSA (Don)		
Platija		
Platuxa		
Txabaloa (Lab)	Solla, platija	Pleuronectes platessa
PAÑEKA	Ikusi PALANĀKA	
PAÑTXO	Pagel, pancho	Pagellus centrodontus
PAPALARDO		
Papardo		
Lanpua	Castañola, japuta, palometa	Brama rayi
PARRITXA		
Parrotxi (Ond)	Sardina, parrocha	Sardina pilchardus
PARTZEMIKI	Zapatero	Oblada melanura
PAZTAÑGA	IKUSI BAZTANGA	
PEIXA	Ikusia ATALUA	
PERLOI BALTZA		
Perloia		
Murloina		
Arraingorria	Perlon, borracho, cuco	Trigla gurnardus
PERLOI GORRI		
Kolondriñe (Ond)		
Arrainzuri		
Murloina		
Pirloina	Golondrina	Triga hirudo
PESKIT	Ikusi DURDUA	
PERLA	Ikusi PERLOI BALTZA	

PIKUA		
Pikuda		
Katea		
Lixa	Pez clavo, tachuela	Echinorinus
PIMPIÑUA		
Pinpiriña (Lab)		
Kolaxu (Ond)	Colaño	Pristiurus melastomus
PLATESA		
Platusa		
SABAI		
Sabaixe (Ind)	Ikus SAKILLO	
SABILLOI		
Sabirol	Escorpión, salbario	Trachinus draco
SABRANDILLA (Lek)	Ondartzako arrain txikia	
SABURDIN		
Ondar azpiko (Ond)		
Laprorjtxa (Lab)	Araño, Escorpión	Trachinus vipera
SAKARAILLA (Lab)	Ikus ITXASKABRA	
SAKILLO	Gallineta, polla	Helicolenus dactylopterus
Kabarroca (Don)		
SAKO		
Sakokia	Ikus ITXASKABRA	
SALBARIO		
Salbera		
Xabiroia	Araño, Escorpión	Trachinus vipera
SAPA (Ond)	Jaten ez dan errekako arrietan ibiltzen dan arrain txikia.	
SAPUITZ (Hond)	Arrain txikia Polizonte	
SARBAISTE	Sargo txiki	Diplodus vulgaris
SARBO	Goaito, burro	Gobius jazo
SARDIÑA	Sardina	Clupea pilchardus
SARDIÑA Parrotxa	Sardinilla	
SARDIÑ IGARRA		
Ijitu sardiña	Arenque	Alosa vulgaris
SARDOI (Ond)	Arrain txiki eta eraso gaiztokoa.	
SARGUA	Ikusi MUJOIA	
SARRAO	Ikus KARRASPIO	
SARRO (Berm)	Arrain txiki bat (Azkue)	
SAURIO (Orio)	Gozotasun gabeko arraiña	
SAUBIYA	Boga	Boops Boops
SERRA (Zerra)	Raya	Raja batis
Auzakua (Lab)	Raya santiaguera	Raja clavata
TAKART	Azkue'k: Paneka	
TAKOT		
Talo Azkue'k: vulgar, macoca		
TALAMAZOKA	Gobio	Gobius cruentatus

TAMBOLIN

Tamboliña (Lab) Ikus ITXAS SAPUA *Lophius piscatorius*

TAÑKARTA

Ikus BAKALLAU

TATXOUELA (Lab)

Pez clavo, tachuela *Malva molva*

TAUKETO (Azkue'k: Atunkia baiño txikiagoa, azalean arnasa artzen dau)

TENKA

Zaparda

Tenca

Trinca tinca

TAULARIN

Urraburu

Dorada

Sparus aurata

TENPLADURA (Hond)

Torpedo, tembladera *Trachyrhynchus scrabus*

TIÑTOLETA

Ikus MARRAIXO

TIRANTEGI Azkue'k Marraixo eta dan zalantza agertzen dau.

TOIL

TOLLA

Ikus KATU ARRAIÑA *Eugaleus galeus*

TRAÑAÑA

Chucho, rata, uxa *Myliobatis aquila*

TROÑPA (Azkue'k Arrain andi, baltz, saltariña), lepoko ega gogorduna.

TROPIE (2)

TROÑPARRAIÑE

Peregrino?

TXABALUA

Ikus ZABALUA

Txabaloia

Pleuronectes platesca

TXAKEDIT

Ikus ARMI-ARMARRAI

TXALTIGOR (Sal)

Chicharrón

TXARBA (B. Ubid)

Ibaiko arrain argala

TXARANGILLA (Orjio) (Azkue'k: Ondartza ondoan artzen dan arrain biribilla).

TXAUTXA

Chopito

TXELBA

Txerba

Pargo, pargueta, urta *Pagrus pagrus*

TXERMOLA

Listado

Luthynnus pelamys

TXIBIA

Jibia, sepia

Sepia officinalis

TXIPILOÑA (Lab)

Txipiroia

Tximiñoia (Lek)

Calamar, chipirón

Loligo vulgaris

TXILIBITU (Zum) Azkue'k: arrain gorrixka, itxasertzetan ibiltzen dena, bigun eta labana.

Labrus bimaculatus

TXILO

Pancho

Pagellus centrodontus

TXIÑDOR (Ber)

Chicharron

TXISTU (Azkue: Ond. Lek.) Guayano

TXITXARRO

Chicharro

Trachinus trachinus

Txitxarri (Lab)

TXITXARRO KUMIE

Jurel

TXOKU

Jibia

Sepia officinalis

TXITXI EZPATA

Pez zorra, guadaña

Alopias vulpes

TROPA

Chopa, pañoso

Obladura melanura

TXILIPITERUE (Ber) Lula'en familikoa

TXORI ARRAIÑ

Juriola, pez volador

Cypselurus heterus

TURBOTA (Lab)	Sollo, rombo, rodaballo	Scophthalmus maximus
TUXUELA	Maruca, berruenda	Molva molva
UERBA (Get., Lab.)	Estornino, caballa	Scomber colias
UGETS (Azkue: ibaietako arraintxua).		
URLASUÑ	Lasuna	
URRABURU	Dorada, chaparreta	Sparus aurata
XABALA (Lab)	Ikusi PLATUSA	
XABIROIA		
Dragoi txiki		
Saburdin	Araño, Escorpión	Trachinus vipera
XARBO		
Xarmota		Euthynnus alleteratus
XARRO	Durdo pequeno	
ZABALER,A	Ikusi MATRAÑA	Trachinus vipera
ZABALOI	Platesa	Pleuronnetes platesa
ZABIA (Hond) Azkue'k:	Besiguaren antzeko, andiago ta eskama askoko.	
Urta		
ZABRAÑDILLA	Arrain txikia. Muxar txikia.	
ZABULOTE (Hond)	Chimbo Arrain txikia	
ZAKAILLA		
ZAKARAILLA	Traquino, araña escorpión	Trachinus draco
ZAMO	Carpa	Ciprinus Carpio
ZAPA	Sapo pequeno	Batraccides didactulus
ZAPARDA	Serrano pinto	Labrus maculatus
ZAPATARI	Mujarra?	
ZARBO	Mujarra	Globus niger
ZARRO (Azkue: Itxas arraian txikia).		
ZARTAMIKO	Mujarra grande	
ZERBO Azkue'k. Ibaiko arraintxikia. Lamprea.		
ZERA (Deba)	Ballenato	
ZEROT (Lek)	Cachalote	
ZERRA	Raya	Raja batis
ZIMARROIA	Ikusi ATUNAK	
Egalabur		
Atunberri		
Kardal (Lek)		
ZOILLU (Get.)	Esturio	Acipenser sturlo
ZOLA	Ikusi LEÑGUAÑA	

OARRAK:

- (1) ABROTA.- Deitura au Fernando Lozano'ren Ñomenclatura Ictiológica liburuan agertzen da (Madrid-Valencia 1963) eta Sparus Pragus zientzi izenez-koen artean. Bilbao'n batzuntzat Txelba dala dirudl.

Oneri buruz "Bermeo Udalerrri eta Itxasoko gaiel buruzko aldizkaria"n, 9, 1992-1993-en, A. Perez Bilbao'ren lan bat dator "De Cómo los Cachalotes se convirtieron en sirenas" deituraz.

Eta arrain orreri buruz diño, Bermeon erabilten dala deitura ori, eta beste ustez erderazko "Peregrino" edo "Cetorhinus maximus" dala, baiña gaztelanizkako iztegieta ez dala Trompa izeneko arrain azalpenik aurkitzen.

Berak diñonez arrain onek ao andia dauka eta ao zabalik ibiltzen da igerian, korapillo (nudo) bi orduko egin leikezala, eta planctona igarazten dauala zakatzen zabal-aldietatik eta era onetan 1.500 tonelada ur igarazi leikezala orduko.

Baleetan dabiltzanak gaur ere "arrantzaten" dabela berak daukan gibelagaitik (gibelak 500-700 kilo pixatu leikezala) gibela dalako bere pixu osoaren % 25-30 inguruko.


Gibel orretatik 600 litro oliotik 1.500 litro aiña atara leikezala.

Nekez asten dan "arralña" dala eta origaitik geiegi artu ezkerero, baleetan gertatu dan lez, kaltegarri izan leikela bere iraupenerako.

Antxiña ondartza eta Itxas ertzetan agertzen ziran erdi zatitutako ondakiñak, "itxas-suge"tzat artzen zirala Bermeon.

Ordez "Fauna Marina de la Costa Vasca" liburuan au irakurri lei: "Itxasoko ur-azalean taldeka agertu oi da batzuetan. Oso geldia da ibilleraz, auetako azienak 15 metro izateraiño iritxi ol dira. Ez da batera arriskuduna. Elikatzeko plankton irazten du zakatzez barrura. Erditzalile da: Industri-koipea ateratzeko arapatu oi da. Luzean 7 metro dituan kolayua oietako batek bi milloi litro ur irentsi ditzake orduko. Erdi marrazo ta erdi-balea dan oietako baten urdaillak erraz ar ditzake 500 kloo janari".

ZUBIKARAITAR AUGUSTIÑ



MILIA LASTUR'KO

Lastur Deba erriaren auzoa dezu.
Zestua, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziar ditu inguruan zulo paketsu orrek.
Gipuzkoan dauden baztar bakan-bakan oietako bat. Mendiak ingurumarian.

Bakardadean.

Ara ez da oraindik kontaminaziorik eldu.

Urte gutxi dira bide-zabaleko muturtxo bat luzatu zala, Itziar'aldetik Lastur'ko enparantzara. Enparantza edo zezen-plaza; Itziarren eta Lasturren enparantza zezen-plaza biurtuta daukate.

Enparantza oso txikia: taberna eta eliza alde batean, zezenentzako ikuillua bestean eta arri-esia bira guztian.

Lasturko festak beti zezen-festak izan oi dira. Edozein baserrietan izango dituzu larrabelak eta larra-zezenak. Gorriak eta motzak, latiñez ikasitakoak. Toloa, Azpeiti, Ondarrabi, Urretxu, Deba, Zestua eta abarren sokamuturrik edo zezenik izango bada, Lasturko zezenak bear. Sakatarrak baztar aietako nagusienak zezen-arazoetan.

Itziar'tik Endoia'ra dijoan bidean sortzen da Lasturrerako adarra. Milla bereratzireun eta larogeita seian adar ori luzatu dute enparantzatik Sasiola'raiño Bilbo'tik Donosti'rako bidearekin topo egiteko.

Lasturrerako kurutzebidean daukazu Aldazabalene, baserri eder galanta. Karliten aizken gerratean Santakruz apaiz gudariak izan ornen zuan bere gordelekutzat. Sakon dago etxea, Lastur sakonago badago ere. Ez zuan bista txarrik izan apaiz burrukalariak etxe ura bere gordeleku aukeratzeko; ez bait zan bide-zabalik orduan bat ere andik Itziar'arte.

Andik oiñez berak eta bere mutillak ordu bete naikoa zuten Deban, Zumaiian, Zestuan, Izarraiztik beera Urolako baillaran, Elgoibarren edo Mendaron agertzeko. Bidetxigor guztiek ara jotzen bait zuten eta andik irteten. Basamortuaren erdian. Aukerako lekua bere burua gordetzeko eta bertatik inguru osoan bere zartakoak banatzeko...

Lasturko alaba zan Milia.

Aita aberatsaren alaba. Aberatsa abere asko-duna da; Lasturko baserriak abere askodunak dituzu: aberatsak. Baiña, Milia'rena oso zan aberatsa.

Milia Lasturretik Mondragoera joan zitzaigun Peru Garzia de Oro jaunarekin eskontzeko. Peruk, Milia gazterik il zan, Marina Arrazola ezkondu aurretik eza-gutzen zuan eta Milia il baiño lenen, Marinad ezkontzeko errekadua egin zion.

Miliaren aizpari ez zitzaion batere atsegin izan Peruren jokabidea eta orixe agertzen dio illeta egunean bertso-kantari:

"Zer ete da andra erdjaen zauria?
Sagar errea eta ardao gorria.
Alabaña, kontrario da Milia,
azpian lur otza ta gañean arria.
Lasturrera bear dozu, Milia,
aitajaunak eresten dau elia,
amandreak apainketan obia;
ara bear dozu, andra Milia!
Jausi da zerurean arria,
arkitu dau Lasturren torre barria,
edegi dio almeneari erdia:
Lasturrera bear dozu, Milia!
Arren, ene andra Milia Lasturko,
Peru Garziak egin desku laburto,
egin dau andra Marina Arrazoleko;
ezkon bekio, bere idea dauko".

Garibay historiari modrautarrak dakarzki bertso auek. Lenengo lerroan "zauria" izena azpimarratu degu, itz orreri buruzko eztabaida dagoelako gaurko egunez. Garibayek orrela dakar eta Jesus Maria Leizaola, gure bigarren lendakariak ere bai bere Obras Completas bigarren alean 21 'garren orrialdean. Alaz ere, askoren iritzian eta nerean ere bai, "zauria" ez baiño "sana" bearko leuke izan.

"Zer ete da andra erdiaen sana?
Sagar errea eta ardoa gorria..."

Emengo edariak txakoliña eta sagardoa ziran; oien onduan ardo gorriak obeto laguntzen zion aurra izandako emakumeari bere odolak berritzen. Gaur ere erditutako andreari "bixita" eramaten zaio ardo goxoa eta ez txakoliñik edo sagardorik.

Garibayek bertso oien azalpena ere ematen digu, onela esaten duanean:

—"Su padre baxaba gran hato de ganado para sus fenerarias":

"Aita jaunak eresten dau elia". Aitak jeisten dau (menditik eleizara) elia (talde aundia, abereena). "Gran hato de ganado" da "elia" Garibayen iritsirako eta Itzulpen ori ondo datorkio Lasturreko izateari, abere-taldeak asko bait dira gaurkoz ere inguru aietan.

Aita jaunak abereak menditik jeisten ari den blartean "ama andreak apainketan obia", illobi edo sepultura. Sepultura-apainketa gureraño eldu da; orain ogei urterarte oitura zan sepultura gaiñetan ogia, argizaria eta beste janari mota geiago eskeintzeko ildakoen onerako, baita arkume, aari, zikiro eta beiak ere. Miliaren aitak abere-taldea zekarren menditik eleizara illetak aundikiro ospatzeko asmotan.

1911 'garren urtean ona zer ikusi zuan Domingo Aguirre euskal idazleak Oikia'ko eleiz atarian: idi gizen bat eleiz atarlan lotuta, apaiz-manteo beltza gainean zuela, lau-librako ogiak bere adarretan sartuak. Oikia'ko erretorearen aita illaren eleizkizunetan arl ziran...

Peruren arrebari ez zitzaion gogoko izan Lasturkoaren esana eta bat-batean eman zion erantzuna:

Ez du Peru Garziak bearrik
ain gatx andia apukaduagatik,
zeruetako mandatua izanik
andrari ok ala kunpli jasorik.
Gizon txipi sotil baten andra zan,
ate arte zabalean oi zan,
giltza porra aundiaren jabe zan,
onra andik asko kunplidu jazan.

Ez dakigu zenbat luzeroko eztabaida izan zanik; baiña, Garibayek badakar beste bertso-saïl bat Miliaren aizparenak. Onela diote:

Arren, ene andra Milia Lasturko,
mandatariak egin deust gaxtoto.
Zerurean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna eta andrea,
bata leen, gero bestea.
Bialdu dogu zeruetara karteia,
arrear diguela geure andrea.
Mondragoeri artu deusat gorroto,
giputz andra ok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz-kalean andra Maria Baldako,
Arte-Kalean andra Otxanda Gabiolako,
Erribalean andra Milia Lasturko.

Zerk itzaldu ote zuen andre-bertsolarien argia? Illeteetan beti izan du andre euskaldunak bere eginkizun bereizia sepultura gainetan egiten ziran lanetan; baiña, geroz eta gutxiago. Ogei urte dira eleizeetan sepulturak gastatu dirala eta galdu; baita emakumearen zeregiña ere. Illeteetan bertsoak esateko oitura zaarra noiz aldendu ote zan gure artetik? Une artan galdu ote ziran gure artetik andre euskaldun bertsolariak...?

Emakumeak bazuan giro artako euskal-gizartean bere nortasuna, aizparen senarrari, danen aurrean, bere irizpideak eta arrazoibideak arpegira orrela bota aal izateko.

Nundi jaso zitun Garibay jaunak bertso auek? Apaiz baten aotik entzun omen zitun, umetxoa zalarik. Juan de Oñate zan apaiza, Mondragoen bizi zana.

Bere amamaren ama omen zan Milia Lasturko

ARRINDA'TAR AÑES

OKERRAK ZUZENTZEN

Aldizkari onen aurreko XXI zenbakian (Urrilla-Gabonilla 1992), 34 orrialdean AUGUSTIÑ ZUBIKARAI'REÑ AKADEMI-SARRERARI ERAÑTZUÑA dion lanean, 28'garren idazkeraren lerroan, oker auk daude:

1. "Bestela onela esango eban": Itz oien ondoren auk falta dira: "Debajo de la campana de la torre" eta sekulan be ez "Debajo de la torre de la campana"

35 orrialdean:

2. 22'garren lerroan "amaitu eban" ondoren, auk falta dira: "Bere esanai-dia Erderaz ari ezkeru, onela esango eban: El auto del hijo..."

Oker auk zuzentzen ez ba'dira esan-aldiak alderantziz gelditzen dira.

ALOS TORREA derizan lanean, berriz, (53-59 orrialde) beste oker sail bat dago: Aren ordezkari eta Eren ordezkari A, askotan.

Gañera, 54 orrialdean, 12 lerroan, 'ere' ori 'bere'.

25 lerroan 'Almanzor maisuren', 'Almanzor mairuaren' da.

55 orrialdean, 10 lerroan, 'Maisuekin burruka', 'Mairuekin burruka' da.

57 orrialdean, 4 lerroan 'bat zan arerik', 'bat zan ererik' da. 9-10 lerroetan 'betetz gaink', 'betzea-gaitik' da.

59 orrialdean, 3 lerroan 'oindura', 'mindura' da. 7 lerroan, 'aitak lur otza' bear du izan. 29 lerroan 'argia ba'zan', 'egia ba'zan'. 31 lerroan 'Bertakoak', 'Bertsoak' da. 33 lerroan 'Bertakoak', 'Bertsoak'. 34 lerroan 'asatza', 'zeatza'.

ANES



LEKEITIOKO KANTAK 1920*l* ik 1930 ra

("Andre Madalen" musikarekin)

Lekeitioko Sanpedropeko
iturriaren aurrean
amalau atso-despeskan dagoz
"Askatasun" baporian.

Prieto jauna alkate degu
Agustintxu da konzejal
Juan eta Antolin alguazil dira
"Rebeka" dauke kartzelan.

(Bis) Prieto jauna...

San Pedro kofradian dago nitxo batean portura begira. Iturri bat zegoen aurrean plazuelatxo batean. Ez dakit gaur an dagoen. Despeska zan antxobearen saretik kentzea, burutik trabatuta etortzen bait zan. Jateko aiek ziran onenak; baiña itxura ez zan ain ona, Iepoa urratuta gelditzen zitzaielako.

Bein Zumaiatik Zumarragara etorri ziran antxoba orrekin saltzera. Emakumeak platera eskuetan agertzen ziran, baiña itxura ura ikusita alde egiten zuten erosi gabe. Que son de malla! Que son de malla! Esaten zieten arrantza-leak... Dana alperrik. Egun artan Busca-Isusi jaunak eta nik, biok, eraman ginduzan etxera ituxuragabeko antxoa eder aiek. Beste inork ez.

"Askatasun" bapora: 1920 inguruan asi ziran "baporak". Aurrerago txalopa aundiak erabiltzen zituzten atunetarako eta traiñeruak, arraunez, antxoba eta sardiña arrapatzeko. "Askatasuna" izena ordukoa ere bada. Baña 1923tik 1929ra Primo de Riveraren diktadura gogorrean ez zegoen orrelako izenik ipintzerik... Bear bada 1923 baiño aurreragoko kanda degu.

Juan eta Antolin ziran gure umearoan ango bi alguazillak: garai artakoak eta berandukokoak ere bai. Ni 1912an jaio nintzan an bertan.

"Rebeka" mariñel bat zan; beti ibilli o! zan "Ay, mi Rebeca" esanez edo kantuz eta orregaitik ipiñi zioten "Rebeka" galtz izena.

Esango nuke baiña-latza naz esaten
Langreo sartun dabe-Kinttaleko baten.

Kalkula uste pues, pues, Ixidora,
ama ataraxu otzaratik kanpora.

Kalkula (bis)...

"Langreo" zan emakume bat, Langreotik etorritakoa.

"Kinttalekoa" zan otzara eto saski aundi bat kintal bat ikatz eramatekoa. Emakumeak eramaten zituzten buruan barkuetako ikatza legorrera ateratzeko.

Berso gaiago daude; balna beti "Kalkula usté.. "errepikatzen da.

Esango neuke baña
lotza naz esaten
"Langreo" sartun dabe
kintaleko baten

Langreo ta Pitxarra-pertzebetan asi
Langreo gixajia-txirist einda yausi.

Kalkula uste...

"Gixajia" itza emakumeari esaten zitzaion; ortik ere badaklgu Langreo ema zala.

Orduan egunian-jan eben bokarta
Santi barrilleruak-auskia aparta.

Kalkula usté...

"Auskia" bien arteko burruka da. "Barrillerua" itzak auxe adierazten du: oriantzu arte (Deban ere bai, Getarian ere bai) barrillak egiten zirala gure por Zertarako? Orain aizkeneko urteetan ez dakit zertarako; bear bada orregatik galdu dira. Baiña garai batean barril asko bear ziran gure portuetan Terranova eta Canadatik ekartzen zuen bale-koipea gordetzeko. Galeoi aundi batek milla baño geiago barril eramaten zitun.

Orduan egunian/Bittor ez zan poztu
Kustok eta Kand;dok konekuak ostu.

Kalkula usté pues...

Nere aurtzaroan Bittor bizi zan. Gizon aundia; errespetoko gizona bizar zuri aundi batetin. Entzunda neukan Karlisten gerratean kargudun gizona izan zala: kapitan edo...

Langreo'rena beste bat:

Langreok alabia-majatuta dauko
Otaxio indixanua-etorten daneko.

Kalkula usté pues...

(Geiago egongo dira, badaoz, baiña baten erdi bat besterik ez naiz gogoratzen):

"Saldupen" irten dabe-Nuevayorrerako.

Kalkula usté...

"Saldupe" zan gabarra zaar baten izena.

Treotzaria emon Mertzedez, Mertzedez/ (iru alditan)...
baiña niri ardurik ez.

Treotzaria zan tretza biltzeko saskia. Tretza zan bixigua arrapatzeko erabiltzen dan amu askoko kordela: eun amu edo...

Treotzaria ematea zan kalabazak ematea.

Kalifornlan dauko barrixa, barrixa (iru alditan)...
Lorenzo begi zurixa.

Uzten det Lorenzok begi bat galduta zeukala: zuri.

Mari Galdakaiño-zozpaletan
zozpalak batunda-kaka albarketan.

Mari Galdakanokoa zan. Galdakaiño esatean adierazten digu Lekeitioko erriak ez eبالa Galdakao, Galdakano baizik esaten

Arioplano bi pasauta-bat itxasora iausi
Ekarri, Seberianosk ekarri-Seberianok ekarri
Seberianok barran pondo emanda itxi.

1914 urteko gerratearen ondoren edo, zan. Egazkin bat topa zuten itxasoan eta Lekeitioko Kai-aurrera ekarri zuten. Ñi oso umea nintzala zer-edo-zeren gomuta badet arazo orrena.

Anteron txamarrotia, Sinjer'en bibotia
aietxek ei dauko-presu tximiñoia

(bis) Anteron txamarrotia...

Antero eta Sinjer bi mariñel ziran... Sinjer aldatu egin dute. Baiña asieran eta Lekeition, izena Sinjer zan.

Kabatanik etortzean, illunduta, kantatzen zuten kalean zear eta nik ortik ikasi nuen umea nintzala:

Ñik ikusi dot leopardua beere/agiña zabalik, agiña zabalik
Ñik esan neutzon barruna etortzeko/ez nai etorri, ez nai etorri.

|mpreterero quiere casar/y no sabe con quien
Eusebia no la quiere/y no sabe lo que hacer.

|mpreterero, txapel txiki,/Eusebiri itxoten
Eusebi etorri ezta/ateetan txis egiten.

|mpreterero, txapel txiki...

|mpreterero erdalduna zan.

Antoliñe cásate/no seas iñusente
aunque sea con el pintor/y sabrás lo que es amor.
Antoliñe cásate no seas iñusente

Turrit, Ñikolerok andriari kurtiñapetik.

Benito Kukumarro nobixia topaten
topa dau, topa dau
Langreon alabia nobixia
topa dau

ARRANEGI'KO ANES



LIBURU BARRIAK

Len garaian baiño gaur, liburu ta idazti asko argitara datorren ezkerero, ezta arritzekoa guk danen buruak gogotan ez erabiltea. Nik idatz-barri diran geienak esku arteratzen ditut. Bearrezko jat ori amaitu-nairik darabildan literatura lana ganoraz amaitzeko. Ñaiz-ta urteetan nazala, asi neban lez amaitu gure neuke "Euskal Literatura", zazpi tomatokoa.

Azkenengo aJea falta jat. Eta berau ondo biribiltzeko, azken orduko euskal idazleai egiaz eskatzen dautset laguntasun pizkat; ots, bialdu egidazue zeuen datu beiñenak, nungo, jaiotz-egun, izen-abizen, idaz-lan, eta beste zertzelada interesgarriak, zeuk literatura orretan agertzea nai zeunkiena. Olan, askoz obeto urtengo dau azken idazki orrek.

Liburu barriak. ODAK ETA EPODOAK Latitarren artean Orazio Olerkari bikaiña dala eskola-ume guztiak be jakitun dagoz; kaiser Augusto'ren olerkari autatua genduan. Ari eskiñiak dira, beraz, arek idatzitako lanetatik asko eta asko. Beti dozu atsegiña ongillea gorestea. Esker oneko biotzaren jabe zan Orazio.

An Loiola'n estudiante zirala jesuita ikasle askoren amesa zan latitar idazle umanista askoren lanak euskeraz jartea; olan egin eban Zaltegi'k, Lauaxeta, Muxika, Andima, Atutxa eta abarrek egin eben euskal-lana.

Arein lorratzez ibilli nairik asi nintzan ni be latinoakaz zaletzen. 1959'an asi nintzan OLERTI ateraten, ainbat olerkari ainbat poesi eder argitara emon dabezana. Onen lenengo zenbakitik dituzu Orazioren eta Virgilio'ren nire itzulpenak azaltzen asita. Beste orrenbeste egiñik latitar olerkai mardo-zabal, entzute aundi-ko bi orrein poesi-lan osoak euskeraztu arte.

Azkenez aurten, 1965'an Virgilio'ren "Idazlanak osorik" lez Orazio'ren "Odak eta Epodoak" argitaldu ditut. Olerki-liburu onek 315 orrialde ditu. Lanak onela dotoz, euskeraz eta latinez. Lenengo, gaia eta azalpen txiki bat, olerkia eukeraz, luze naiz labor, gero oar-sailla, eta azkenez lan berbera latinez.

O1 ENMANUEL! Aita Felix Zubiaga'ren olerki liburua. 98 orrialde. "Lizardi" saria, 1991, Eusko Jaurlaritza:

Guna:

"Poesia Haseran
Jainkozko gauzen
erakusketa zan".
... eta gizartean
egon-min nerea"

"ORIXE)

92 lantxo, biozkada samurrez gozatsu landuak. Bakotxak dau bereirudimena eta biotza. Olerkia orixe bait dozu. Eta olerkari onek tasun biak polito nastaurik, lan bizi ederrak damoskuz besteetan lez liburuxka onetan. Goiz-aizeak joa dagon-ostoz berdeak lez zirkin dagitsi arrigarri izate osoak.

Irakurri eta dastazu zeuk zelakoak diran neuk Jango lipar beteak igarorik.

Txorta bat egin nalez, aukeratzen asiko ba'giña, ez gintzakigu aukerapena erreza izango. Amabi marrazko dotore datoz tarteka.

Aita Akesolo karmeldarraren Idazlan Guztiak. Aita Urkiza'k billatu eta sailkatu dauz Dima'ko seme jakitunaren lanak iru tomu aunditan. Lenengoan lan oneik daukazuz: "Euskera eta gramatika", "Euskal idazleak", "Euskal literaturaren inguruan"; liburuak, Euskera eta Biblia "Euskal testodun idazlana", "Kondaira eta biografi-artikulu eta oarrak", "Liburuen barrl-emoteak".

Bigarrenean au dirakurgu: "Euskera eta gramatikaren inguruan (barriro be); "Euskal idazleak", "Euskal literatura", "Kondaira", "Liburuak"... "Euskeraz", "Biblia eta abar", "Kondaira eta bibliografi", "barriemoteak".

Guztira, lenengo ale buena, 1541 eta irugarrenak 450 orrialde. Euskal idazleen artean klasikueta klasikua da Aita Akesolo. Umetatik ekian euskera bizitza zear, ikasi ta irakurriz dialekto guztietan, euskal idazlerik onenatariko, besteai ezertxo be sendo barik, berau dogula uste dot nik. Idazten ziran euskal lanik geienak irakurri erioazan, eta euskal idazle goienengoetan bere eritxiz okerren bat aurkitzen ebanean, ba-ekian polito txibita erabilten.

DESLILURAREN PARABOLAK. Aita Fermin Iralagoitia buru dala Eubako

Pasiotarrak guztiz ederto eta gogotsu diardue euskera lanean, baita ainbat liburu euskerazkoak argitaratzen be. Au be, Felix Zubiaga'k egiña, "Ibaizabal" argitaletxeak ateratakoa dogu. Poesi liburuxka. 81 orrialde eta 61 neurtitz polit; 11 argazki irudikor.

Lanetatik ona bat, 25'garrena, "Pipia erreta zoratzen naiz..." deritxona.

Zain muiñen haren garbian
bekaitzez egon etsaia
poziak orain zikindu doa
lizunjarío bizia:
drogaren lehia.

Bedar gaiztoen sumuaz
biztu liluraren suaz
odol garbia bezten diharduk
egun argia lainoaz:
drogaren trukaz.

Bidea goizik galduta,
atzeko hormea ia jota,
betarte galdu zelan dirudin
noragabeko robota:
drogaren sorta

Larreikeriaz legetik ate
hesi zapalketen alde,
odol galduez sorgortu hago
buru garauen aldarte:
drogaren kalte.

Zeru aizunen argitan
henbilen jaingo-zirikan
zeruki argiaz haiteken ahaztu
ta gogait amil sulezan
drogaren presan.

Auxe dozu, euskeraz be, gaurko olerkari askoren joera: Zerbait esan nai, naiz eta esan-nai ori sarritan illuna izan. Ikasiko al dogu, apurka, olerkari onein izkuntza illun-samar au be.

SABIN MUNIATEGI. Oraindu argitara emon zituan ondarrutar euskaltzale argiak bizkaitar olerkari onen neurtitzez osoturiko 1155 orrialdeko liburua, txalo be-roak merezi leukezana. Mutikotatik asi zan Sabin olerkiak ondoten. Gaztetan egin eban Filipanes'era ostera bat, eta ordukoak doguz aren "Golz-Aize" idaztian datozanak eta 1935'tik asita "Euzkadi"-n datozan lenengoak; eta bizitza osoan, eta 1990'an il arte ekin eutson, ia beti, poesia lantzen.

Idazle bakoetak dau bere burua eta biotza, olerkariak atan be; Sabin Muniategi'k beste edozeiñek lez. Ñik ez diñot gure arteko Lizardi baten oler-sena eta euskera bikaiña daukanik, baiña bai gure inguruko literaturatako poeta txaloti askoren mallara eltzen dala. Ugaria zan, ugariegia bear bada. Sarritan, olerkari mallara garaia lortzeko asko dituzu zortzi-amar lan dotore, poeta burestuna betikoz jazteko. Or, gazteleraz Donibane Gurutz et gurean Lizardi.

Sabiñ'en olerkiak diñozan liburuan gain-gaiñetik onela daukazuz banaturik: 1. Biotzeko lorak (935-1934); 2. Egunkarietako olerkaria eta "Goiz-Aize" liburua

(1935- 1937); Eguneroko olerkiak (1937); olerkiak urteka lez "Oleri", "Zeruko Ar-gia", "Bidean Gora'n idatzitakoak, bederlatzi urteko lana; Sariak eta aldizkariak, amairu urtetan, guztiz eundaka olerkl.

Sekulako mirariak egiten dauksuz maite-garrak. Muniategi'ren biotz-garraren bafada finak dira 1155 orrialde ontako ale mardul ontan dituzun lanak.

IPIUÑAK: Errose Bustintza. "Mañariko" Antolatzailea, Jaime Kerexeta Kere-xeta, Itzaurrea Aita Onaindiak. "Gero" argitaretxeak atera dau aritara. 135 orrial-de. Amazazpi rnarrazki bipildotore egiñak.

Errose ipuinlari trebea "Kirikiño" zanaren lobeia genduan. Bere egunetako al-dizkarietan eta abar ainbat ipuin unkgarri emon euskun, bizkor irakurten ziranak. Sarri argitaratuak ain zuzen. Aspaldian erdi azturik geunkan lanok ondo be ondo dotoz gure egunotan. Argitalpen eder onek bekaitza sortu dau agiri danez, az-ken illean Durango'ko liburu azokan ikusi genduan, ba, beste argitalpen bat be, "Gero"-n egiñaren antz-antzekoa, batu- ortografiz. Eguzkiak be, naiz-ta lortu ez, zokondo guztietara eldu nai.

SEI IPUI AMODIOZKO. Egille: Xabier Mendiguren. "Susa" k argitaratua 73 orrialde, sei ipui marrazkidun.

Euskal letretan ezaguna da X. Mendiguren, baita ipuin saillean be. Badaki euskal irakurleari zer jakon atsegin.

BIZKAIKO OLERKARIAK. Bilbao, Igarri irarkolan, 1990, lenengotik gaur daiño bertsoz idatzi daben guztiak aitatzen dira. Bizkaitarrai eder bekie lan au. Egille: Aita Onaindia,

Egilleak itzaurrean onan:

Euskalerrri osoan, zein egoaldean eta zein iparraldean, eder-zale ugari izan doguzanik ezin daikegu ukatu; baita egoaldeko Bizkaia onetan be, aurrean do-gun liburu ontan datozanak zenbatzen asi ero, nekatu egingo giñake danak bat

Eta ez gara bizkaitarrok , gizaldi ontakoak batez be, ez dozuz ar-buiagarriak, Edegi diñodan olerki liburu eta irakur, baita erbestetar izkuntzeko beste batzuk be, eta autor egistazu garbi-garbi gureak bai diran ala ez diran el-tzen erbestetar orrein neurrira. Ñik irakurri dodaz gulango aberri lauetakoen oler-lanak, or Errusiar Eututxenco, adibidez, edo edozein errumiar olerkari, eta ziu-rran nagoala esango dautazue.

Gaurko askoren olerki-lana, nire eritxiz, oker doa. Olerkia ez da adarrik adar ibiltea, edo nok pentsamentu ta biotz zauskada ilunagoak bota ibiltea. Buruak sortu bei ideia labor dotore bat, oldozkun oni biotzak emon beio su beroa, eta emen daukazu izkuntza galantak ederturik, olerkiaren txukuna; ez ibilli buruari, ez biotzari geiago eskatzen. Irakur Orazio, Obidio, Virgili, naiz beste edozein eta ez dozu orixe baiño aurkituko. Beste ori naspilla dozu, ez besterik. Igaz Gabon os-tean, Benidorm'era eroan ninduenean, euskal olerki liburu bat eroan neban au-rreko urtean nor-geiagoka baten saritutakoa. Tarteka irakurri neban, baiña berta-ko lanetatik bat bera be ez neban ulertu, bi bider irakurrita be. Eta nik olerkia ida-tzi ta landu izandot irurogei ta amar bat urtean.

Liburu ontan daukazuzen lanak ez dituzu olakoak, emen euki arren Lauaxeta, Erkiaga, Aurraitz eta besteen lan bikaiñak. Idatzi daiteke, orrein antzera eder eta ulerkoi, sasi-garraxi barik be.

Onakoak diño, idazleak jarten dauala erdia eta irakurleak beste erdia. Olan jokatu ete eben gaur be klasiku doguzan idazle nagusiak? Uretako zangurruak lez, atzatzeka gabiltzalata nago.

Gaitezan danok idazle errez eta eder.

AITA ONAIÑDIA

MUNGIALDEKO UME-KANTAK

1

Txikitxu polit ori, zer dozu merezi.
Errekan berotu ta galdaran egosi.
Galdaran egosi ta arrian golpe bi,
arrian golpe bi ta kakoan eskegi.

2

Txikitxu polita nongua zara?:
Jauna ni Mungiakua.
-Ala be naiago neuke baziña neure
errikua.

3

Logure naz ta lo egingo neuke,
baneuko oirako laguna.
Oirako laguna badet,
bainā agure lepo makurra.

4

Al loguretan eragin dozu,
laster asiko nalatsu.
Ara ta bere arintzuago,
alxtotzuan banabiltzu.

5

Txilin-txilin, parau belauniko.
Altza Jesukristo.
Aitatxu, amatxu urrian,
urrian txitxetxu babalorian.
Loratzu ala kñkillera,
ona zamurrera,
Zuriñe Bidebarriko,
buelta beste aldera.

6

Joseba datorrenian,
zaldi zurien ganien.
Berreun kaskabel urregorritzko,
zaldiek eroanien.

Beste ainbeste, milla geixago,
atzeko petralien.

7

Muñltxu txanbeliñek,
eskonduten dire.
San Migel inguruen,
agertuten dire.
Bizerra luzetu ta,
muzzurre zorroztu,
andriak "bartzuenagaz"
bietzak apurtu, bietzak apurtu.

8

Tirikitauki-tauki mailluaren otsa,
amalau argiñ baiño oba dok arotza.
Errementari baiño oba dok sesteru,
lepo bete palugaz, boltsa bete diru.

9

Txikitxu polita zer dozuz koloriak?,
zuri dozuz koloriak,
gorrirtuteko metal-ure,
edan biozu (bear dozu).
Txikitxu polit ori,
zelan zara bizi?
Joan dan aspaldion,
ez zaittut ikusi.

10

Perretxikotan ibili nintzan,
Mendiolako basoan.
Dama gazte bat topatu neban,
aretz baten ondoan.
Gaztea naizela, zoroa nintzala,
jarri nintzan alboan,
amantaltxoa gora bueltaute,
artu ninduen altzoan.

ASIER LEGARRETA

MUNGI ALDEKO ESAERAK

- 1.- Mundue yakinduriek erre biar dau.
- 2.- Kale gorrien itxi dable.
- 3.- Gizon ori adi dau okillen moduen.
- 4.- Al Jaungoikoa! Bat eta bera naikoa.
- 5.- Zur dabillena da abillena.
- 6.- Balore andiek suerte txarra ikeratuten dau.
- 7.- Ume orrek muxe baiño ez deuko.
- 8.- Ala umia, kopla gitxiago!
- 9.- Ori "pepe" eginda bizi da.
- 10.- Larrabetzu, Lezama ta Loiu bier asko egin ta arto gitxi koiu.
- 11.- Larrabetzuk al dauenik eta da koisuten deutsu.
- 12.- Maritxu goizien goiz txokolatia ta arratsaldan koipetsu.
- 13.- Zu gizon, anega bat altzetako kapaz (gauze) ez zara.
- 14.- Txakurrena eta bi pasa erain deutzoz.
- 15.- Txorjekaz oira ta txoriekaz gora.
- 16.- Azagokoa noerberarena baiño obia da beti.
- 17.- Ñora zatoz zu? Arraiñeri uger irakasten?
- 18.- Amen, zu or eta ni emen.
- 19.- Landara orrek apur bat "sarkatsatute" (kikildute, zimeldute) dagoz.
- 20.- Bai, orrek eperdie baju dekio oindiño (oraindio)!
- 21.- Orrek kokola kokolo, zurrek izetan dire eurentzako.
- 22.- Isilik eta geldl zauz "mandango" (mandasko) zarrori.
- 23.- Kendu eizu inguruetatik bei latre ori.
- 24.- Leku guztietan egosten dire babák.
- 25.- Txarto dabillanak txarto akabetan dau.
- 26.- Dirue munduko aberatsen zerue.
- 27.- "Erdi geldi" dau gauzia.
- 28.- Zirri-zarra nabil erasten nire bel zarra.
- 29.- Gizon orrek "zirkiñik" (arrastorik) be ez dau isten.
- 30.- Emen da jakituriaren jarlekua.
- 31.- Zauz geldi ume zistrin ori!
- 32.- Zoaz joan bear badozu, atze-ariñori!
- 33.- Ze ordu? Txise ein, da oira ordu!
- 34.- Moskorti bategatik esaten dana: Ori popagiño kargata dau.
- 35.- Ume bateri: Isilik ez ba zauz "atzeko parrilla berotuko deutsut.
- 36.- Orrek, arroan arroagaz (arrokerien arrokeriagaz, kaderakaz berjek be ez dau ikututen.
- 37.- Ori beti dau erdi-ilik, ez dekonian dirurik.
- 38.- Pobrian tristesia, diruan eskasia.
- 39.- Aberatsen poztasune, diruen ugaritasune.
- 40.- Ori lukie bera baiño zurrau dau.
- 41.- Kotuz orregaz, ze orrek badeko "zegaz" (dirue).
- 42.- Jan eizu afarie! -Ez!- Orduen ajillan ibiliko zara.
- 43.- Atzetik kotxie pastan izan da, ortxe edo emehtxe.
- 44.- "Iyoako" 36 urtian ez da kanbieu ezer.

- 45.- "Zurrunean" tamaiñako egur takoa da ona.
- 46.- Beti dekozu zer edo a eitteko.
- 47.- Ume ori loguriagaz erreta dau.
- 48.- Ori guzurre dalakoa dekot.
- 49.- Guzurre diñostala ta nau.
- 50.- Guzurrían dabilela ta nau (nago)
- 51.- Arrazoa atara atzeko buztanetik.
- 52.- Ori beti dau atzeko uskien adi.
- 53.- Lepoko bizkerreko bat emon.
- 54.- Ibili eziñik ta ibili ein biar, au de biar modue.
- 55.- Kontuz piztiekaz gero, orrek ez dakie berba eiten eta!
- 56.- Oillo-gorra koiu yoat, eta orman eskei yoat.
- 57.- Mutil orrek latin daki.
- 58.- Pertsona ori baiño atzeriaurik ez dau.
- 59.- Andra ori galipota baiño motzaua da.
- 60.- Amona, esan dautsazu esan biarrekoa: Ez isilik on naz (egon naz), erai ta txarrau de-ta.
- 61.- Zoas popatik artzian. Zoas sakutik artzian.
- 62.- Esakera zarratan guzur gitxi.
- 63.- Berba andiek, eskurrek txikiek.
- 64.- Leken lekuen ardiyek, baltzan artian zuriyek.
- 65.- Zarren esakerak gustiek jasokerak.
- 66.- Errementarien etxian zotza burduntzi.
- 67.- Balizko olak burdiñik ez.
- 68.- Gizona, kanpoan ederra ta etxian gerra. Kanpoan uso, etxean otso.
- 69.- Esanak eder, egiñak lander.
- 70.- Ba leuko ta ba litz alkarren pareko dabiltz.

ASIER LEGARRETA




ESAKERA ZARRAK

- 1.- "Alperra beti lanez beterik"
- 2.- "Len ola, orain ola, gero ez jakin nola".
- 3.- "Txori txikia, abesti txikia".
- 4.- "Aldi luzeak, guzia aztu".
- 5.- "Otso gosea, ibiltari".
- 6.- "Zeian etxea, urrezko atea".
- 7.- "Ibiltari gabea, logale goizean".
- 8.- "Zuri guztiak ez dira Iriñak".
- 9.- "Beti on nai duena, maiz gaizki".
- 10.- "Itzez, gizonak aditzen dira".
- 11.- "Txarrak garaille izateko, onak deus ere ez egitea nai".
- 12.- "Emanago eta nalago, edanago eta egarriago".
- 13.- "Amak irin ba'lu, opil ba'leite".
- 14.- **"Geroa: alperraren leloa"**.
- 15.- **"Igaroa, igaro"**.
- 16.- "Zor zarra, zor txarra".
- 17.- **"Su gaberik ez da herik"**.
- 18.- "Artzen dana, zortzen da".
- 19.- "Ordu batean ezin dana, bitan egiten da".
- 20.- "Aurtzaroan bigun, gaztaroan ttun ttun, zartzaroan illun".
- 21.- "Umeak ikasia, etxean ikusia".
- 22.- "Zolatan dagoana, bere gaitzen entzulea".
- 23.- "Bizi dena, nundik edo andik agertzen".
- 24.- "Irri egiñaraziz ez zaitzela zu irri egingarri billaka".
- 25.- "Oker edo maingu, norbait ba'giñu".
- 26.- "Zelako gizona, alako otoitza".
- 27.- "Bostak eta illuna, txarria ilteko eguna".
- 28.- "Lana da gure adiskiderik onena".
- 29.- **"Legea, oituratik dator"**.
- 30.- "Dominus Vobiscum, agindu ta emon ez egin euskun".
- 32.- **"Etxetik urrun, zorionetik urrun"**.
- 33.- "Danean dantxoa, nere gizontxoa".
- 34.- "Olio eta egia, doatza gaiñera".
- 35.- "Artu dagizunean gatzaren ardurea, akordako jatzu gazte-tenporea".
- 36.- "Mendian sortu, mendira nai, gure protrikuek etxera ez bildu nai".
- 37.- "Bide aunditik doana, segurkienik doana".
- 38.- "Bakotxa bere sokeak urkatu oi dau".
- 39.- "Eroriz, eroriz, olñez ikasten".
- 40.- "Katu ñaukari ez da izango eiztari".
- 41.- "Dakusanak gure jantzia ezta kike gure bearra".
- 42.- "Azkenekoa dan lez, ba'litz lenengoa, dantzan egingo neuke ba'neuke gogoa".
- 43.- "Gaztaro alperra, zartzaro kaskarra".
- 44.- "Azillako eguna, argitu orduko illuna".

- 45.- "Lapurrak asarratu, ardi-lapurra agertu".
- 46.- "Orekariak orekan, arrantzaleak arrantzan".
- 47.- "Mariki eman eta urriki, eman gabe atxiki".
- 48.- "Otsoak ez du bere aragirik jaten".
- 49.- "Odolkiak ordañetan".
- 50.- "Ñun illundu, an ostatu".
- 51.- "Mendian jaioak, mendira nai".
- 52.- "Zuurrak, bi itz aski".
- 53.- "Dakienak lan daidi, ez dakienak leer daidi".
- 54.- "Antonio Polonio, Pascual Bixente, antxiñako emaztegia aurrean presente".
- 55.- "Eskola-mutilla, sasirik-sasi, asko jan eta gitxi ikasi".
- 56.- "Erramona biru, txano bete diru".
- 57.- "Ondo egin ezkerro loa, osasuna ondo doa".
- 58.- "Katua elorrian dago". (Zerain'go esakera).
- 59.- "Zaartasuna bera, eritasuna".
- 60.- "Alper da Maria makillatu, ezpa'da berez biurtu".
- 61.- "Jokin eskolara joan eta batere ez jakin".
- 62.- "Zek egin zenduzán beargin? Bearrak bear eragin".
- 63.- "Txapela buruan eta ibilli munduan".
- 64.- "Amabiak. Katuak jan ditu bazkariak".
- 65.- "Asto merkea, bota nekea".
- 66.- "Ik emon eta nik kendu, zapoak oñak kendu?".
- 67.- "Lekuan, lekuan ardiak, baltzen artean zuriak".
- 68.- "Altuan Arantzazu, barrenean Oñati, eder galanten billa beti oi da ibilli".
- 69.- "Bentura dadiñak artza, eztadiñak ez eta bartza".
- 70.- "Maitatzeak maitatzea du artze".

MALAX-ETXEBARRIATAR JOÑ
"KALAMUA"



Omenaldiak

ALBISU TAR ANASTASIO

Azken illetan, gure batzarkide eta adiskide biri omenaldiak ospatu izan dira.

Aita Santi Onaindia'ri bat. Beste orrialde baten agertzen dogu berea. Bestera, Azpeiti'n, urtero an ospatzen diran Antzerki Topaketetan, Albisu tar Anastasio, Lazkaotar seme argiari.

Anastasio euskal langille ixilla izan da, baiña ugaria.

Ixilla Azkoitin, parroki lanetan.

Bere goramenetako baten au irakurri izango dogu:

Anastasio 43-an Azkoitian kokatzen delarik eleizbarrutiko ekintza guztiak euskeraz antolatzen asten da: Sermoiak, idatziak, batzarrak... eta abar. Azkoitiarrak kristau fedea euskeraz bizitzen dute. Aurrez Azkoitin eleiz ekintza gutxi egiten ziren eta aldaketa onek baten baiño geiagori ezaipaiak zimurtu zizkion. Adibide bat: Anastasioren zilar eztaiak zirela eta azkoitiarrek Gartxi Ximeno antzerkia antzeztu zuten eta gero Zarautz'erako deialdia artu eta bertan antzeztu galerazi. Konturatu ze garaitan izango zan.

1989 urtean Azkoitiko Udalak Azkoitiako Sema izendatu zuan.

Bere euskal lana ere ugarizat emon bear, batez be antzerkigintzan.

Bere lenengo lana 1935'n saritua izan zan. "Ñi ez Kristarra" Berrio-Otxoaren martiritzan oiñarrituta.

Urrengo urtean "Garoa" antzerkiratu eta "Ñi ez neskazar" komedia idatzi zuntun.

Gerratea igaro eta 1944'n Txomin Arlote komedia. Eta 1945'n Gabon-Gau antzerki liturkijoa.

Gero datoz "Mesederik aundiena", "Ogi ta ardo Eduardo", "On egitean dago zoriona", "Loiola-Xabier", "Garxi Ximeno", "Fernando Amezketarra", "Leen bear zuen"; "Ñekaldia", "Trabenan", "Euskal Erriaren etorkizuna" Euskerazaintza aldizkari onetako XX zenbakian argitaratua eta abar.

Tartetan itzulpenak egiten ere alegintzen da, esateko "El Borracho Burlado", Peñaforida Kondearena, "Moskorra parregarri" izen buruakin.

Danetara 16 antzerki dira idatziak.

Antzerki guztiak, bat ezik, "Kardaberaz", "Egan" eta beste aldizkarietan agertu izan dira. Bat "Sortzez Garbia" paper artean galduta euki bear du.

Liburu artean, ERREKA ZULOAN ETA argitaratu zuan 1973 urtean eta urte bi geroago, 1975'n GARXI-XIMEÑO ETA..., "AMEZKETAKO PERÑANÑO" eta "20 IPUIN TA IKASTOLETARAKO ANTZERKITXO BAT".

Orrez gain bertso-zale amorratua danez, bertso idazten ere ez da makala izan eta ortazko aldizkarietan agertu izan dira bere batzuk.

EUSKERAZAIÑTZA poztu egiten da orrelako gizonekin eta ezin ukatu gure zorionik berari.

ESALDI JATORRAK

- Ez da nere burua ZURITZEAGATIK...
- OÑIK aterako zerate.
- ONEZ-OÑEAN esaten dizut.
- Jakiñan gaiñean dago.
- Deitu egin bear al zaio?
- BETI ERE obe izango da.
- Gaur ez du ALAKO otzik egiten.
- Onak izan.
- Jende gaizto asko da, baiña TARTIAÑ-TARTIAN onak ere agertzen dira.
- Oliyoa EMAN BERRITAN obeto ibiltzen da.
- Ñako txintxo ba-zoazte...
- ALA JOAÑ BEAR ERE...
- Zuretzat LAN OBERIK izango da, baiña ORRELAKOETAÑ txarra ere OÑ biurtzen da.
- Txakurrak EZ BEZELA, otsoak isatsa ank-artean eraman oi du.

ITXURAZKO ARGAZKIRIK BAI?

- ALA-OLAKO bat aurkitu det.
- Au EGITEKO ordez, beste au egin zazu.

ALA BEREAN.

- Ori sorgin bat da!
- Eta ez EDONOLAKO sorgiña ere!
- Balea sorgin bat da!
- Eta ez EDOÑOLAKO sorgiña ere!
- Balea UR-AZALERA irten zan.
- EZUSTEKO bat gertatu zan.
- NUNDIK EDO ANDIK zuzenduko degu.
- LORIK EGIÑ EZIÑIK?
- Orain ere gizentzen ari naiz!
- Arritu egiten al zera? Beti GELDI-EGONIAN zaude-ta.
- Aurra ona dezute, EZIÑ DA GEYO.
- EDER-IRITZI.